**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2019ko URTARRILAREN 29 / 29 - ENERO - 2019**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2019/01/29

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE / INTERVENTOR**
Don Jokin Palacio Perez jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2018KO IRAILAREN 25EKOA OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN, aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2018ko irailaren 25ekoa ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2018ko irailaren 25ekoa.**

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE 25 DE SETIEMBRE DE 2018.**

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión ordinaria de 25 de Setiembre de 2018.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **25 de Setiembre de 2018**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Gai-ordenatik kanpoko gai bi dauzkagu barneratzeko. Posible da urgentziaz barneratzea, baina bozeramaleen batzordean erabaki dugu aho batez gai-ordenan zelan sartu, kasu bi desberdin direlako, gai-ordenak koherentzia izan dezan.

Barneratzeko daude, alde batetik, nire eskabide bat, konpatibilitatearen ingurukoa, eta, bestalde, Erabakik aurkeztutako mozio bat. Beraz, hurrenkera hauxe izango da: berri emate atal hau amaitutakoan zuzenean 5. puntura pasatuko gara (5. puntua 3.na bezala); ostean bozkatuko dugu nire konpatibilitatea bozkatzeko urgentzia eta gero konpatibilitatea bera, eta gero 3. eta 4. puntuetan sartuko gara. Eta ostean mozioen atalean sartuko gara.

Gainerako kontu guztietarako eskuragarri izan dituzue prozedura guztietako espediente guztiak Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos dos asuntos no incluidos en el orden del día, que deben ser contemplados. Se podrían incluir por vía urgente, pero en la Junta de Portavoces hemos decidido por unanimidad la manera de incluirlos, debido a que se trata de dos asuntos diferentes y para mantener la coherencia del orden del día.

Se trata, por una parte, una petición mía, sobre compatibilidad, y, por otra parte, una moción presentada por la plataforma Erabaki. Por tanto, el orden será el siguiente: una vez finalizada esta información pasaremos al punto quinto (recogido como tercero). A continuación someteremos a votación la urgencia del tema de compatibilidad que personalmente presenté y, tras su eventual votación, pasaremos a los puntos tercero y cuarto. Para finalizar, pasaremos a las mociones.

Para el resto de los asuntos que vamos a tratar hoy aquí, han tenido ustedes a su disposición los expedientes de todos los procedimientos en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**BOST.- BIDEZKOA BALITZ, DURANGOKO UDALAREN ESKOLA KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA ONARTZEA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA. (2019KO URTARRILAREN 17KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen irizpena 2019ko urtarrilaren 17koa, eta honako hau dioena:

*"2016ko ekainaren 9ko Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordean Jon Andoni del Amo jaunak 2016ko maiatzaren 31ko Udal Osoko Bilkuran egin zen Durangoko Udal Hezkuntzaren Kontseilua sortzeko eskaera azaldu zuen. Hezkuntzako udal teknikariak, batzordeko presidentearen eta EH Bildu taldeko kideen laguntzarekin aztertu zuen Kontseiluaren bideragarritasuna eta batzartu ziren Ikastetxeen eta Guraso Elkarteen Ordezkariekin Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren oinarriak egiteko asmoz.*

*Batzordearen presidenteak, batzarkideek eta Hezkuntza teknikariak 2018ko azaroaren 29an egindako bileran araudiaren zirriborroari ekarpen eta aldaketa batzuk egin zitzaizkion.*

*Azkenik, 2019ko urtarrilaren 17ko batzordean aurkeztu zen, aldaketak eginda, Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren proposamena, eta Iker Oceja Sobrón jaunak, Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentearen ordezkari moduan, Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren proposamena bozkatzea eskatu zuen.*

*Bozketaren emaitza:*

- *Aldekoak: 6 Iker Oceja Sobrón jauna (EAJ/PNV), Jon Andoni del Amo Castro jauna eta Maria Soledad Yolanda Juaristi andrea (EH Bildu); Francisco Javier Lopez Lakunza jauna (Herriaren Eskubidea); Mauricio*

**CINCO.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO ESCOLAR MUNICIPAL DE DURANGO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 17 DE ENERO DE 2019).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación, de 17 de Enero de 2019, del tenor literal siguiente:

*"En sesión de 9 de junio de 2016 Don Jon Andoni del Amo trasladó a la Comisión de Euskera, Cultura y Educación la petición realizada en sesión Plenaria Municipal del 31 de mayo de 2016 de creación del Consejo Municipal de Educación de Durango. La técnica municipal de Educación en colaboración con la presidenta y miembros del grupo EH Bildu de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación estudiaron su viabilidad y se reunieron con representantes de los centros educativos y representantes de las Asociaciones de Padres y Madres para establecer las bases del borrador del reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Escolar Municipal de Durango.*

*En reunión de la presidenta, los miembros de la comisión con la técnico de educación celebrada el 29 de noviembre de 2018 se hicieron varias aportaciones y modificaciones del borrador del reglamento.*

*Finalmente, en la sesión celebrada el 17 de enero de 2019 se presentó la propuesta de reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Escolar Municipal de Durango con las modificaciones realizadas, y Don Iker Oceja Sobrón, actuando por delegación de la presidenta de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación Doña Olaia Albizu Gallastegi, sometió a votación la propuesta de reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Escolar Municipal.*

*Resultado de la votación:*

- *A favor: 6; Don Iker Oceja Sobrón (EAJ/PNV), Don Jon Andoni del Amo Castro y Doña Maria Soledad Yolanda Juaristi (EH Bildu); Don Francisco Javier Lopez Lakunza (Herriaren Eskubi-*

*García Martín jauna (PSE-EE-PSOE); eta Francisco Garate Mintegui jauna (PP).*

- *Kontrako botoak: 0.*
- *Abstentzioak: 0.*

*Hortaz, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Informazio Batzordeak Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudiari aldeko irizpena eman ondoren, testua, Udaleko osoko bilkurari helaraziko dio berau aztertu eta, hala badagokio, onartua izan dadin."*

* Idazkaritza Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeak irizpena onartu du Durangoko Udalaren eskola kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendu araudia onartzeko. Behin araudi hau eginda, hasierako onespena dagokio eta ondoren informazio publikoko aldia zabalduko da -gutxienez 30 egunez jendaurrean-, erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izateko. Erreklamazioak edo iradokizunak egingo balira, erantzun egin beharko lirateke; baina hasierako onespenari erreklamaziorik aurkeztuko ez balitzaio, hasierako onespen hau behin betikoa bihurtuko litzateke eta, ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko litzateke.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Aipatutako batzorde horretan azaldu genuen moduan, aldeko iritzia dugu, eta, ondorioz, gaur aldeko botoa emango diogu.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Erregelamendu hori beste foro bat gehiago da, prestakuntza-zentroekin adostasun gehiago lortzeko, eta iruditzen zaigu positiboa dela.

Gainera, hobeto koordinatuta jardun ahalko dugu ikastetxeekin, Udal honek ikastetxeekin batera garatzen dituen ikasgai guztietan, hala nola ingurumena, immigrazioa, aukera-berdintasuna... Alor ugaritan jarduten dugu ikastetxeekin batera la-

*dea); Don Mauricio García Martín (PSE-EE-PSOE); y Don Francisco Garate Mintegui (PP).*

- *Votos en contra: 0.*
- *Abstenciones: 0.*

*En consecuencia, la Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación emite dictamen favorable en relación al Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Escolar Municipal de Durango y lo eleva a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."*

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La Comisión de Euskera, Cultura y Educación ha aprobado el dictamen por el que se aprueba la organización y el reglamento de funcionamiento del Consejo Escolar del Ayuntamiento de Durango. Una vez realizado el reglamento, se debe proceder a su aprobación inicial, tras lo cual se abrirá el plazo de información pública, que se prolongará por un mínimo de 30 días, para que la ciudadanía pueda presentar sus reclamaciones o sus sugerencias, en cuyo caso habría que darles respuesta. En caso de que no se presentaran reclamaciones a la aprobación inicial, se convertiría automáticamente en definitiva, tras lo cual debería ser publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Como ya expusimos en la comisión que se ha mencionado, mostrábamos nuestra opinión favorable y, en consecuencia, hoy también emitiremos un voto favorable.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Este reglamento supone un foro más en el que poder llegar a consensos con los diferentes centros formativos y nos parece que es bueno.

Aparte, nos va a permitir coordinarnos mejor con los centros educativos en todas aquellas materias que llevamos desde este ayuntamiento con los centros escolares, como pueden ser materias de medioambiente, inmigración, igualdad de

nean, eta erregelamendu hau, hain justu, iruditzen zaigu modu askoz efizienteagoa izango dela, gaiak aurrera eraman ahal izateko.

Azkenik, herritarrek parte hartzeko ordenantza garatzea ere ekarriko du; izan ere, ordenantzak erraztasunak ematen ditu tankera horretako kontseiluak osatzeko, eta pozgarria iruditzen zaigu egingo dela jakitea.

* <u>**Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)**</u>: Azken orduan, baina araudi hau prestatzen parte hartu ahal izan dugu, eta uste dugu beharrezko tresna dela eta gure aldeko botoa emango diogu.

* <u>**Juaristi Alberdi andrea (EH Bildu)**</u>: Historia apur egitearren, komentatuko dut gaurko deialdiaren irizpenean Hezkuntza Kontseiluaren sorreraren onarpena 2016ko maiatzaren 31n izan zela agertzen dela.

Egun horretako aktan agertzen denez, EH Bilduk aurkeztutako mozioaren aldeko botoak 10 izan ziren, Euskal Herria Bildu gehi Herriaren Eskubidea, eta kontrakoak 11, EAJ, Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra. Hortaz, udaleko osoko bilkuran gehiengoaren botoarekin ez zen onartu.

Urte bete baino gehiago behar izan genuen batzordeetan behin eta berriro ikastetxeen arteko komunikazioa eta koordinazioa beharrezkoa zela eta udalari dagozkion gaietan parte hartzeko eskatzen.

2017ko uztailean beste mozio bat ekarri genuen; mozio horretako gaia zera zen, 2016n Eusko Jaurlaritzak eskolentzat eskaini zituen diru-laguntzak ez eskatu izana. Hori zuzentze aldera Eskola Kontseilua eratzeko konpromisoa hartu zuen udalak. Mozio hori onartua izan zen aldeko 20 boto eta abstentzio batekin. Tartean beste urte eta erdi pasatu dira.

EH Bilduk zirriborro bat prestatu zuen eta batzordean aurkeztu. 2018 ekainean Durangoko ikastetxe gehienekin batzar bat egin

oportunidades... son muchas las áreas que trabajamos conjuntamente con los centros escolares, y este reglamento nos parece que es una manera más eficiente de llevar los temas.

Por último, a la vez también nos supone un desarrollo de la ordenanza de participación ciudadana, ya que esta ordenanza facilita la creación de este tipo de consejos y nos alegramos que se lleve a cabo.

* Concejal <u>**Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**</u>: Pese a que ha sido en el último momento, hemos podido participar en la preparación de este reglamento, y creemos que se trata de una herramienta necesaria. Por lo cual, anunciamos nuestro voto favorable.

* Concejala <u>**Sra. Juaristi Alberdi (EH Bildu)**</u>: Por hacer un poco de historia, comentaré que en el dictamen que da lugar a la convocatoria de hoy, consta que la aprobación de la formación del Consejo se produjo el 31 de mayo de 2016.

Según se recoge en el acta de este día, la moción presentada por EH Bildu sumó diez votos, los correspondientes a Euskal Herria Bildu y de Herriaren Eskubidea, mientras que los votos contrarios fueron once: Partido Nacionalista Vasco, Partido Socialista y Partido Popular. Por tanto, no se aprobó con la mayoría de la sesión plenaria de este Ayuntamiento.

Durante más de un año, reivindicamos en las comisiones que era necesaria la comunicación y la coordinación entre los centros educativos, e instamos al Ayuntamiento a que participara en los asuntos oportunos.

En julio de 2017, presentamos otra moción, entre cuyos temas destacaba que no se habían solicitado las subvenciones dirigidas a los centros educativos que había convocado el Gobierno Vasco en 2016. Para corregir tal situación, el Ayuntamiento se comprometió a crear un Consejo Escolar. Esta moción fue aprobada con 20 fotos favorables y una abstención. Ha transcurrido un año y medio desde aquella votación.

EH Bildu presentó un borrador, y la presentó en la comisión. En junio de 2018, celebramos una reunión con la mayoría de los centros educativos de Durango para presentar el borrador. Los cen-

genuen aurkezpena egiteko. Ikastetxeek beraien interesa aipatu zuten eta kontseilua beharrezkotzat jo zuen; batzar horretan, irailerako martxan jartzeko konpromisoa hartu genuen, baina orain arte ez da posible izan araudiaren elaborazioa luzatu delako.

Guk honen alde egin dugu beti, uste dugulako kontseiluaren bidez saihestuko dugula sakabanaketa eta estamentu bakoitzaren esku-hartzearen eraginkortasuna. Uste dugu, era berean, eragile guztien parte-hartzea bermatuko duela eta herritarren beharrizanen aurrean botere politikoen erantzuna egokitzea ahalbideratuko duela.

Laburbilduz, udalak hezkuntzari dagokionean bere ardura hartuko duela. Hemendik aurrera lanean jarraitzea eta kontseilua edukiz betetzea da gure nahia, horretarako denok parte hartzea eta inplikatzea.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk aldeko bozka emango diogu.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Aipatzeko, data aldatu behar dela irizpenean txarto jasota dagoelako eta, horrez gain, bi kontu gehiago.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidenteari, Olaia Albizuri, beti prest egon delako hitz egiteko eta elkarrekin lan egiteko. Batzuetan tiraka ibili behar gara, eta kasu honetan tiraka ibili gara hiru urtez, baina azkenean lortu da eta uste dugu tresna oso potentea izango dela etorkizunean. Batzorde honetakook herentziaz utziko dugun zerbait izango da.

Eta bigarren kontua. Ikastetxeetan zer egiten den koordinatzeaz eta hainbat eta hainbat ekimen martxan ipintzen saiatzeaz gain, oso erreminta garrantzitsua izan liteke etorkizunerako; izan ere, Durango berrasmatu beharrean dago, eta, berriro asmatzeko lan horretan, oso jarduera-ildo nabarmena izan liteke hezkuntza eta hezkuntza-proiektuen ingurunea bera ere jorratzea. Eta hau oso erreminta garrantzitsua izan liteke zeregin horre-

tros escolares mostraron su interés y consideraron que el Consejo Escolar era necesario. Así las cosas, adoptamos el compromiso para ponerlo en marcha antes del mes de septiembre. No obstante, ha resultado imposible, debido a que se ha extendido el proceso de elaboración del reglamento.

Nosotros siempre nos hemos mostrado a favor, ya que consideramos que, a través del consejo, podremos evitar la dispersión, fomentando así la efectividad de la intervención de cada estamento. Creemos, asimismo, que garantizará la participación del conjunto de los agentes y que permitirá a su vez la adecuación de la respuesta de los poderes políticos ante las necesidades de la ciudadanía.

En resumen, el Ayuntamiento asumiría su responsabilidad en materia de educación. Nuestro deseo es continuar trabajando y dotar de contenidos al consejo, para lo cual resulta imprescindible la participación y la implicación de todos y de todas.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros votaremos a favor.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Quisiera comentar que habría que subsanar la fecha, debido a que no está correctamente recogida. Por otro lado, un par de asuntos más.

En primer lugar, quisiera dar las gracias a la Presidenta de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación, Olaia Albizu, por la disposición que ha mostrado en todo momento a favor del diálogo y de la colaboración. En ocasiones hemos tenido que tirar de la cuerda, y esta vez hemos tirado durante tres años, pero finalmente lo hemos conseguido y consideramos que se tratará de una herramienta potente para el futuro. Se tratará de una buena herencia que dejaremos los participantes de esta comisión.

Y, en segundo lugar, aparte de para coordinar lo que se hace entre los diferentes centros y aparte de para tratar de poner en marcha iniciativas numerosas, puede ser un instrumento muy importante de cara al futuro porque Durango se tiene que reinventar y, en esa reinvención, la educación y el entorno a los proyectos educativos lo que se pueda poner en marcha puede ser una línea de actuación muy importante y esto puede

tarako. Hiru urte behar izan dira, baina martxan dago azkenean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu batzordeko kide guztiei aldeko botoa ematearren.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, eta toki araubideko oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 49. artikulua aurreikusten duen tramitea jarraituz, hauxe

ONARTZEN DU:

LEHENA.- **DURANGOKO UDALAREN ESKOLA KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEA**, testua honako hau da hauxe erabaki du:

ser un instrumento importante para ello. Ha costado tres años, pero al final está en marcha.

Quisiera dar las gracias a todos los miembros de la comisión por su voto favorable.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, y siguiendo el trámite previsto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local,

ACUERDA:

**PRIMERO**.- Aprobar **INICIALMENTE** el **REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO ESCOLAR MUNICIPAL DE DURANGO**, cuyo texto literal es el siguiente:

***"HITZAURREA***

*Durangoko Udala jabetzen da hezkuntza udal politikaren lanik garrantzitsuenetako bat dela eta, hezkuntza alorrean legeak ematen dizkion eskumenen garapenean, bermatu egin behar duela hezkuntzaren programazio orokorrean inplikaturiko eragile guztien parte hartzeko eskubidearen eraginkortasuna. Horrela, bada, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 13/1998 Legearen III tituluak arautzen duenaren arabera, proposatzen da Durangoko Udalaren Eskola Kontseilua sortzea, udalerrian unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazioan aritzen diren alderdi inplikatuen parte-hartze, kontsulta eta aholkularitza organoa izan dadin.*

*Horren haritik, Durangoko Udalaren Eskola Kontseilua sortzeak aukera emango du herritarren parte-hartzea eraginkorragoa izan dadin hezkuntzaren alorrean, eta horrek ahalbidetuko du botere publikoen erantzuna egokitzea, ahalik eta gehien, herriko hezkuntza komunitatearen beharrei.*

*Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren bidez saihestuko dugu sakabanaketa eta alderdi edo estamentu bakoitzaren esku-hartzearen eraginkortasun eza. Era horretan, bakoitzak bere aldetik parte hartu beharrean eta bakoitzari kontsultatzen ibili ordez, guztiek baliozko bitarteko instituzionala izango dute, gizartea eta heziketa prozesuaren binomioan beharrezko oreka dinamikoa eta harreman estua ekarriko dituena.*

***I.KAPITULUA: KONTSEILUAREN ERAKETA ETA HELBURUAK***

***1. artikulua. Eraketa.***

*1.1. Durangoko Udaleko Eskola Kontseilua Durangoko udalerriaren esparruan, hezkuntza ez unibertsitarioaren programaziorako, jarraipenerako eta kontrolerako kontsulta, aholku eta parte hartzeko organoa da; eztabaidagunea izango da Durangoko ikastetxeentzat, ikasleen guraso elkarteentzat eta ikasleen ordezkarientzat; horrez gain, udalerriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazioari dagokionez (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko*

*Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Helduen Hezkuntza), Euskara, Kultura eta Hezkuntza Udal Batzorde Informatiboak izango duen kontsulta eta aholkularitzarako tresna ere izango da.*

*1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute kontseilua.*

*1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala izango du.*

***2. artikulua. Helburuak.***

*2.1. Gizarteak edo instituzioek hezkuntza komunitatearentzat bideratzen dituzten prestakuntza, kultura, kirol eta aisialdi eskaintzak koordinatu eta txertatzea.*

*2.2. Durangoko ikastetxeek udal mailan parte hartu dezaten ahalbidetzea.*

*2.3. Udalak dituen eskumenen barruan hezkuntzaren gaiak kudeatu eta konpontzearren Eskola Kontseilu Arrunta honen bidez Udala inplikatzea.*

*2.4. Hezkuntza jarduerak Durangoko inguru geografikoan, sozioekonomikoan eta kulturalean, erabat integratu daitezen bultzatzea.*

*2.5. Pertsona bere osotasunean garatzeko ekimen egokiak bultzatzea: hezkidetza, bizikidetza, osasuna...*

*2.6. Hezkuntza esparruan komunitatearen inplikazioa areagotzea.*

*2.7. Hezkuntza arloan, euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea. Eskola arteko paktua adostea, gutxieneko konpromisoa zehaztuz.*

*2.8. Ikasle etorri berrien beharrizanei egokitutako harrera eta jarraipen prozedurak sustatzea, gainerako ikasleek dauzkaten aukera sozial bertsuak izan ditzaten.*

*2.9. Herritarren hezkuntza beharrak betetzen direla ziurtatzea.*

## *II. KAPITULUA: FUNTZIOAK*

***3. artikulua. Funtzioak.***

*Aipatutako helburuak bete ahal izateko Udal Eskola Kontseiluak ondoko eginkizunak egikarituko ditu:*

*3.1. Ondoko apartatuen inguruan iritzia eta aholkua eman eta proposatzea:*

*3.1.1. Udal arloan, hezkuntza politika osoa diseinatzen inplikatuta dauden sail guztien parte hartzea bultzatzea.*

*3.1.2. Hezkuntza arloan Udalak inbertitu behar dituen baliabideen finkapena, banaketa eta kudeaketa aztertzea, eta baita hezkuntza ekintzeterako Udalak bere aurrekontuan sar litzakeen beste funts batzuk (diru-laguntzak, jarduerak, etab.) ere.*

*3.1.3. Hezkuntzari buruzko udal jarduerak aztertu eta proposatzea, ondorengo hauek bezalako gaiak jorratzen direnean: osasunerako hezkuntza, aniztasunaren tratamendua, gizarte laguntza,*

*ingurumena, hezkidetza, bizikidetza, eskolaz kanpoko jarduerak, arautu gabeko hezkuntza, hezkuntza berezia, helduen hezkuntza iraunkorra, hasierako lanbide prestakuntza.*

*3.1.4. Udaleko hezkuntza zerbitzuen prestazioa hobetzeko, Durangoko Udala ez den beste erakunde batzuekin, hots, Eusko Jaurlaritza, edo erakunde honen Berritzegunea edo Ikuskaritza, Osakidetza, Foru Aldundia, beste udal batzuk, etab., sinatu beharreko hitzarmenak aztertu eta proposatzea.*

*3.1.5. Durangoko ikastetxeek udal mailan parte hartu dezaten ahalbidetzea.*

*3.1.6. Durangoko Udalaren euskara, kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, ongizate, enplegua, aukera berdintasuna, hirigintza arloekin eta beste batzuekin elkarlanean aritzea, Durangoko hezkuntza arloari eskaintza bateratu, kalitatezkoa eta koordinatua emateko asmoz.*

*3.1.7. Eskola matrikulazio aurreko sasoietan eskola komunitateko eragile sozial eta biztanleei zuzendutako euskarazko hezkuntza ereduen aldeko sentsibilizazio-kanpainak antolatzea.*

*3.1.8. Euskara eta euskal kultura ardatz gisa harturik, balizko curriculum propio baten sorreraren alde lan egitea.*

*3.2. Udal Eskola Kontseiluak hezkuntza arloko administrazioari proposamenak edo ekimenak aurkeztu ahalko dizkio, udalerri mailako edo udalerrian eragina duten udalerriaz gaindiko hezkuntza-arloko gaiei buruz.*

*3.3. Durangoko hezkuntza sistemaren egoerari eta hobetzeko proposamenei buruzko urteroko txostena landu eta egitea.*

*3.4. Heziketa integraleko eskaintza hobetzeko ekimen pedagogiko berritzaileak sustatzea.*

## *III. KAPITULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA*

***4. artikulua. Osaketa.***

*Presidenteak, presidenteordeak, kontseilariek eta idazkariak osatuko dute Durangoko Udal Eskola Kontseilua.*

***5. artikulua. Presidentea.***

*5.1. Kontseiluko presidentea udaleko Hezkuntza Saileko zinegotzi-delegatua izango da, horretarako alkatetzak izendatutako pertsona.*

*5.2. Kontseiluko presidentea organoaren ordezkari gorena izango da, eta hauek izango dira bere betekizunak:*

1) *Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.*

2) *Batzar Nagusiko bilerak dinamizatzea.*

3) *Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.*

4) *Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legeetara egokitzen direla zaintzea.*

5) *Hezkuntza Kontseiluak hartzen dituen erabakien berri ematea Batzordeari.*

6) *Kontseiluaren ohiko funtzionamendua bermatuko du, eta, gainera, eskumena izango du bozketak erabakitzeko berdinketak izaten direnean bere kalitatearen botoaren bidez.*

*5.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, presidenteordeak ordezkatuko du presidentea.*

***6. artikulua. Presidenteordea.***

*6.1. Presidenteak kontseiluko kide bat proposatuko du presidenteorde izateko, eta Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrak izendatuko du berau, gehiengo sinplez.*

*6.2. Presidenteordeak presidentearen lekuan jardungo du kargua hutsik bada, edo hura kanpoan edo gaixorik bada, eta hark eskuordetutako ahalmenez baliatuko da.*

***7. artikulua. Kontseilukideak.***

*7.1. Hauek dira Udal Hezkuntza Kontseiluko kideak:*

*a) Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko kideak: alderdi politiko bakoitzak proposaturiko ordezkaria, presidentearen alderdi politikokoa izan ezik. Iritzi eta boto eskubideekin.*

*b) Udalerrian, irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen diren zentroen zuzendariak, iritzi eta boto eskubideekin: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Fray Juan Zumarraga Institutua Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1), San José (Jesuitak) HLBHIP (1), Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua (1) eta Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxea(1). Guztira (11).*

*c) Udalerrian, irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen diren zentro hauen guraso elkarteen lehendakariak edo ordezkariak, iritzi eta boto eskubideekin: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Instituto Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1) eta San José (Jesuitak) HLBHIP (1).Guztira (9).*

*d) Batxilergoa ematen duten ikastetxeetako ikasleen ordezkari bat.*

*7.2. Udaletik, teknikariak eta ordezkari politikoak izango dira kontseiluko kide. Hauexek:*

*a) Kultura arloko zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.*

*b) Udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bat. Udal taldeek pertsona delegatua izendatu dezakete eta halaxe jakinaraziko diote Kontseiluko idazkariari. Halaber, titular bakoitzeko ordezko bat ere izendatu dezakete. Kideen izendapena alkateak egingo du talde bakoitzaren proposamena jaso eta gero. Ordezkariok ahotsa izango dute, baina botorik ez.*

*c) Udal taldeak ahaleginduko dira euren ordezkariek euskaraz aritzeko gaitasuna dutela bermatzen, horrela, Kontseiluaren bilerak arin gara daitezen.*

*d) Hezkuntza arloko teknikaria, Kontseiluko idazkari lana egingo duena. Ahotsa izango du, baina botorik ez.*

*7.3. Presidenteak, bere ekimenagatik edo kontseilukideek proposatuta, pertsonak eta erakundeak gonbidatu ahalko ditu Udal Hezkuntza Kontseiluaren bileretara edo lantaldeetara, baldin eta beraien balorazioa, iritzia edo ustea interesgarritzat hartzen bada.*

*7.4. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, Udal Hezkuntza Kontseilua osatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin (sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkaritza) neurriak hartuko dira.*

***8. artikulua. Kontseilukideak izendatzea.***

*8.1. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, udal talde politikoek proposatuta, udal taldeen ordezkari izango diren kontseilukideak izendatuko ditu alkateak.*

*8.2. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ikastetxeen zuzendaritzek ikastetxeen ordezkari izango diren kontseilukideak proposatuko dituzte. Ordezkari horiek ikastetxeen zuzendaritza taldeetako kideak izatea proposatzen da.*

*8.3. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ikasleen guraso elkarteek proposatuko dituzte ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteen kontseilukideak.*

***9. artikulua. Idazkaritza.***

*9.1. Idazkaria udaleko hezkuntza arloko teknikarietako bat izango da.*

*9.2. Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian eta lan batzordeetan izango da. Idazkariak Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan hitza izango du, baina boto eskubiderik ez.*

*9.3. Hauek dira idazkariaren funtzioak:*

1) *Kontseiluaren batzarretara joatea, hitzarekin, baina boto barik.*
2) *Kontseiluaren batzarretarako deialdiak eta gai-zerrendak bidaltzea.*
3) *Kontseiluaren batzarren aktak egitea eta dokumentazioa gordetzea.*
4) *Kontseiluaren erabakiak ziurtatzea, presidentearen oniritziarekin.*
5) *Kontseiluaren funtzionamendurako behar den laguntza teknikoa eskatu eta ematea.*
6) *Dokumentazioa prestatu eta kontseiluko kideei garaiz bidaltzea.*
7) *Dokumentazioa eta postazko harremana tramitatu eta artxibatzea.*
8) *Bileretako gai zerrenda prestatu eta deialdiak tramitatzea.*
9) *Kontseiluko organokoek eskatzen dizkioten eginbeharrak.*

***10. artikulua. Kontseiluko kidetza galtzea.***

*10.1. Hauek dira Durangoko Udal Eskola Kontseiluko kideek kide izaera galtzeko egon daitezkeen arrazoiak:*

*a) Agintaldia amaitzea.*

*b) Kide izateari uko egitea.*
*c) Kontseilua berritzea.*
*d) Talde baten ordezkariak diren aldetik, talde horretakoak izateari uztea.*
*e) Izendatzeko orduan egon ziren baldintzetako edozein betetzeari uztea.*
*f) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.*

*10.2. Kontseiluan lekuren bat hutsik geratuz gero, dagokion taldeak beste pertsona bat proposatuko du legegintzaldia bukatu arterako edo postua uzteko geratzen den aldirako.*

### *IV. KAPITULUA: EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA*

***11. artikulua. Batzar Nagusia.***

*Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eratuta: Presidentea, presidenteordea, idazkaria (udaleko hezkuntza teknikaria) eta kontseilukideak.*

***12. artikulua. Batzar Nagusiaren Ahalmenak.***

1) *Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.*

2) *3. artikuluan zehazten diren eskumenei dagozkien txosten eta erizpenak eztabaidatu eta onestea.*

3) *Eskola Kontseiluko Kontseilu presidenteordea aukeratzea, presidenteak proposatu ondoren.*

4) *Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.*

5) *Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta euren eginkizunak ikuskatzea.*

6) *Udalbatzak arautegi hau aldatzeko udalaren sail eskudunari behar diren egintzak hastea proposatzea.*

***13. artikulua: Batzar Nagusiaren Funtzionamendua.***

*13.1. Ohiko Batzar Nagusiak ikasturtean zehar bi bilera egingo ditu gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren.*

*13.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute. Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da ezohiko batzar nagusiko deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.*

*13.3. Ohiko batzarrak, ezohikoak bezala, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazko deialdia egiteko, ostera, gehienez 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsiko du.*

*13.4. Gai-zerrenda kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkioten gainerakoekin osatuko da. Edozein kasutan, proposamen horiek kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.*

*Kontseiluaren idazkariak helaraziko die kontseilukideei gai-zerrendan dauden gaiei buruzko eztabaidarako eta botaziorako oinarria izango den dokumentazioa.*

*13.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, eskubide osoko kideen herena bertaratu beharko da. Beti bertaratu beharko dira presidentea eta idazkaria, edo horien ordezkoak. Quorum hori bilera osoan beharko da.*

*Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da modu automatikoan, eta quorum berbera beharko da bilera balioarekin eratzeko.*

*13.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da eskubide osoko kideen artean. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenak abstenitu egin daitezke.*

*Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da.*

*Botazio batean berdinketa dagoenean, berriro emango da botoa.*

*Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko.*

*Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo sinpleak hala eskatzen duenean.*

*13.7. Batzarreko erabakiak, oro har, bertaratu diren eskubide osoko kideen gehiengo sinplez hartuko dira. Hala ere, beren-beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kideen erdia baino gehiago direnean. Edozein modutan, kontseilu sektorialen izaera aintzat hartuz, Batzar Nagusiaren akordioek proposamen ez lotesleen izaera izango dute udal administrazioarentzat.*

*13.8. Beharrezko ikusiz gero, Batzar Nagusira udaleko beste teknikari batzuk bertaratu ahalko dira, eta baita eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo eskumenak dauzkatelako gonbidatzen diren pertsonak ere. Hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman.*

***14. artikulua: Lan Batzordeak.***

*14.1. Lan batzordeak azterketarako eta lanerako organoak dira, eta Kontseiluaren menpe daude. Euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari. Lan batzordeen proposamenak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu Kontseiluak bere gain hartu ditzan.*

*14.2. Lan batzordeak iraunkorrak izan daitezke edo gai zehatzak aztertzeko eratu daitezke, eta txosten modura aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari.*

*14.3. Lan batzordeak Batzar Nagusiak sortuko ditu, ofizioz edo Batzar Nagusiko ordezkarien heren batek hala eskatzen duenean, eta izendapena, eraketa eta funtzionamendua finkatuko dira.*

***XEDAPEN INDARGABETZAILEA***

*Indargabetu egiten da 1991eko azaroaren 28an onetsitako Udaleko Eskola Kontseiluaren Araudia eta haren osagarri diren gainerako arauak.*

***AZKEN XEDAPENA***

*Araudi hau indarrean sartuko da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen dituen baldintzak bete ondoren.*

***ORDEZKARITZA***

*(1)........................................................................................................... andreak/jaunak, (2)................................................................................, adierazten du, ezin duela ......ko .......................-ren .........-(e)an egingo den Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren batzarrera joan, eta horrexegatik, DELEGATU egiten diola bere ordezkaritza eta botoa ........................................... andreari/jaunari.*

*Horrela agertzeko, sinatzen dute ondorengo dokumentua, Durangon .......ko .......................-ren ......-(e)an*

*Sinatua. Jaun/Andrea.................. Sinatua. Jaun/Andrea....................*
*Delegatzailea Delegatua*

*(1) Delegatzailearen izen-abizenak.*
*(2) Kargua."*

----------------

***"INTRODUCCIÓN***

*El Ayuntamiento de Durango, siendo consciente de que la educación es una de las tareas importantes de la política municipal, y que en el desarrollo de las competencias que la ley le confiere en materia de educación debe garantizar el ejercicio efectivo del derecho de participación en la programación general de la enseñanza de los agentes implicados en ella, en base a la regulación del título III de la Ley 13/1988 de Consejos Escolares de Euskadi, propone la creación del Consejo Escolar Municipal de Durango como órgano de participación, consulta y asesoramiento de los sectores sociales implicados en la programación de la enseñanza no universitaria en el ámbito municipal.*

*En este sentido, la constitución del Consejo Escolar Municipal de Durango permitirá una más efectiva participación ciudadana en la vida educativa haciendo posible que la respuesta de los poderes públicos a las necesidades educativas de los/as ciudadanos/as se ajusten, en mayor medida a las demandas de la comunidad a la que va dirigida.*

*Por medio del Consejo Escolar Municipal se evitará la dispersión y la falta de eficacia de la intervención de cada uno de los sectores o estamentos, que en lugar de participar y ser consultados de forma independiente, contarán con una vía institucional válida y que aportará el necesario equilibrio dinámico e íntima relación entre el binomio sociedad-proceso educativo.*

***CAPITULO I: CONSTITUCIÓN Y OBJETIVOS DEL CONSEJO***

***Artículo 1. Constitución.***

*1.1. El Consejo Escolar Municipal de Durango constituye el órgano de consulta, participación y asesoramiento de los centros educativos de Durango, las asociaciones de Madres y Padres del alumnado y los representantes del alumnado, y el instrumento de consulta y asesoramiento de la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación del Ayuntamiento en lo referente a la programación de la enseñanza no universitaria (Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Educación de Personas Adultas) en el ámbito municipal.*

*1.2. El Consejo se regirá por el presente Reglamento y por las demás disposiciones que resulten de aplicación.*

*1.3. El Consejo gozará de autonomía funcional con respecto a la Corporación municipal.*

***Artículo 2. Objetivos.***

*2.1. Coordinar e incorporar las ofertas formativas, culturales, deportivas y de ocio que desde la sociedad o las instituciones se dirijan a la comunidad educativa.*

*2.2. Posibilitar la participación a niveles municipales de los diferentes centros educativos de Durango.*

*2.3. Implicar a través de este Consejo Escolar Municipal al Ayuntamiento en la gestión de la problemática de la enseñanza dentro de las competencias y en la asunción de soluciones.*

*2.4. Impulsar la integración plena de las actividades educativas en el entorno geográfico, socio-económico y cultural de Durango.*

*2.5. Impulsar iniciativas adecuadas para el desarrollo integral de la persona: coeducación, convivencia, salud,...*

*2.6. Incrementar la implicación de la comunidad en el ámbito de la educación.*

*2.7. Impulsar en el ámbito de la Educación la normalización y utilización del euskera. Acordar el pacto entre centros educativos concretando uno compromiso de mínimos.*

*2.8. Impulsar procesos de acogida y seguimiento personalizados y adaptados a las necesidades del alumnado recién llegado que les permita tener las mismas oportunidades sociales que al resto del alumnado.*

*2.9. Asegurar que se cumplen las necesidades educativas de la población.*

***CAPITULO II: FUNCIONES***

***Artículo 3. Funciones.***

*A fin de dar cumplimiento a los objetivos precedentes el Consejo Escolar Municipal podrá ejercer las siguientes funciones:*

*3.1. Asesorar, opinar y proponer sobre los siguientes apartados:*

*3.1.1. A nivel municipal, impulsar la participación en todos los aspectos implicados en el diseño de la política global educativa.*

*3.1.2. Analizar la fijación, distribución y gestión de los recursos que en materia educativa corresponde invertir al Ayuntamiento, además de aquellos otros fondos como subvenciones, actividades. etc. que el Departamento de Educación incluya en su Presupuesto Municipal para el sector educativo.*

*3.1.3. Analizar y proponer actuaciones sobre disposiciones municipales relativas a la enseñanza en materias tales como educación para la salud, tratamiento de la diversidad, asistencia social, medioambiente, coeducación, convivencia, actividades extraescolares y enseñanza no reglada, educación especial, educación permanente de adultos e iniciación profesional.*

*3.1.4. Analizar y proponer convenios y acuerdos necesarios con otras instituciones extramunicipales como el Gobierno Vasco, Berritzegune, Inspección, Osakidetza, Diputación Foral, otros ayuntamientos u organismos con el objeto de mejorar la prestación del servicio educativo en Durango y hacer gestiones para que estos organismos asuman diferentes problemas que se consideren prioritarios para la comunidad escolar de Durango.*

*3.1.5. Posibilitar la participación a niveles municipales de los diferentes centros educativos de Durango.*

*3.1.6. Colaborar con los Departamentos municipales de Euskera, Cultura, Educación, Juventud y Deporte, Acción Social y Empleo, Igualdad, Urbanismo y otros, con el objeto de dar una oferta conjunta, de calidad y coordinada al sector educativo de Durango.*

*3.1.7. En las campañas de prematriculación escolar animar y promover campañas públicas de sensibilización a la población y agentes sociales educativos de la comunidad escolar promoviendo las enseñanzas en los modelos euskaldunes.*

*3.1.8. Promocionar y trabajar en el desarrollo de un curriculum propio para Durango y Durangaldea que tenga por ejes aglutinadores el euskara y la cultura vasca.*

*3.2. El Consejo Escolar Municipal podrá elevar a la Administración Educativa y a los órganos municipales de gobierno propuestas e iniciativas en relación con cualquier asunto educativo de ámbito municipal o supramunicipal que afecte al municipio.*

*3.3. Elaborar el informe anual sobre la situación del sistema educativo en Durango y propuestas de mejoras.*

*3.4. Fomentar iniciativas pedagógicas innovadores para la mejora de una oferta educativa integral.*

***CAPITULO III: COMPOSICIÓN DEL CONSEJO***

***Artículo 4. Composición***

*El Consejo Escolar Municipal estará integrado por la Presidencia, la Vicepresidencia, los/las Consejeros/as y el/la Secretario/a.*

***Artículo 5. La Presidencia***

*5.1. La Presidencia será ostentada por el/la Concejal/a delegado/a del área municipal de Educación, nombrada y separada libremente por la Alcaldía.*

*5.2. La persona que ocupe la Presidencia del Consejo ostentará la máxima representación del mismo y asumirá las siguientes atribuciones:*

*1) Convocar y presidir la Asamblea General.*

*2) Dinamizar las sesiones de la Asamblea General.*

*3) Resolver las dudas que se presenten con motivo de la interpretación y aplicación del presente Reglamento.*

*4) Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.*

*5) Informar a la Comisión de los acuerdos adoptados por el Consejo Escolar.*

*6) Garantizar el normal funcionamiento del Consejo, teniendo, además, la prerrogativa de dirimir las votaciones en caso de empate por su voto de calidad.*

*5.3. En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, la Presidencia será sustituida por la Vicepresidencia.*

***Artículo 6. La Vicepresidencia.***

*6.1. La Vicepresidencia será nombrada por mayoría simple por el Pleno del Consejo Escolar Municipal, a propuesta de la Presidencia, entre sus Consejeros y Consejeras.*

*6.2. La Vicepresidencia suplirá a la Presidencia en los casos de vacante, ausencia o enfermedad y ejercerá las facultades que ésta le delegue.*

***Artículo 7. Los Consejeros y Consejeras.***

*7.1. Son Consejeros y Consejeras del Consejo Municipal de Educación:*

*a) Los y las componentes de la Comisión de Euskera, Cultura y Educación: el/la concejal/a-representante de cada grupo municipal en la Comisión de Educación, salvo el del/la Presidente/a. Con derecho de voz y voto.*

*b) Un/a director/a o representante de cada centro educativo que imparte enseñanza no universitaria en el municipio, con voz y voto, que serán de: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Instituto Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1), San José (Jesuitak) HLBHIP (1), Instituto Municipal de Formación Profesional Básica (1) y Centro de Educación de Personas Adultas Durango (1). En total (11).*

*c) Un/a presidente/a o representante de las Asociaciones de Padres/Madres del Alumnado de cada centro educativo que imparten enseñanza no universitaria en el municipio, con voz y voto, que serán de: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS*

*Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Instituto Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1) y San José (Jesuitak) HLBHIP (1). En total (9).*

*d) Uno representante del alumnado de cada centro educativo que imparte Bachillerato.*

*7.2. Por la parte técnico institucional, formarán también parte del Consejo:*

*a) Concejal/a del Área de Cultura, con voz y voto, quien ejercerá la Presidencia, previo nombramiento por Alcaldía.*

correspondiente ámbito técnico. La comisión establecería un calendario para sus funciones y debería acordar todas las medidas necesarias, tales como la solicitud de informes, comparecencias, etc.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Bizkortasunagatik, Erabaki plataforma batzorde honetan biltzeagatik eta bermatzeagatik izapideak legeak zehaztuko moduan egiten direla, batzordea sortzearen aldeko botoa emango dugu gaur.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Por agilidad y por la posibilidad de incorporar la plataforma Erabaki a esta comisión y por garantizar que se hagan los trámites como marca la ley, vamos a votar a favor de la creación de esta comisión.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Aldeko botoa emango diogu. Osoko bilkura honetan hartu genuen konpromisoa da.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Anunciamos el voto a favor. Es un compromiso que asumimos en este pleno.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Uste dut nahiko argi geratu dela gai honen inguruko gure jarrera; ez daukagu ezer asko gehiago kontatzeko, baina uste dugu gai hau eraman zitekeela dagoeneko sortuta dauden batzordeetako batean.

Dauzkagun batzordeetan kabitzen dira hemen esan berri ditugun planteamendu guztiak. Batzorde horiek hilean bitan elkartzen dira, eta ezohiko batzarrak ere egin ditzakete, beharrezkoa izanez gero. Hain justu, gogora dezakegu abuztuaren 10ean egin zen ezohiko deialdi bat, proiektu honi buruzko azalpenak ez emateagatik. Eta gogorarazten dut, zeren batzorde hartan bi lagun bakarrik agertu baikinen: gobernu-taldeak batzorde horretan dituen hiru ordezkarietatik bakarra baino ez zen azaldu, eta bertan behera geratu behar izan zuen, quorumik ez zelako.

Horrenbestez, ulertzen dugu edozer batzordetan, hirigintzakoan adibidez, jorra litekeela auzi hori, batzorde bat *ad hoc* sortu beharrik gabe. Eta, bide batez, bada esaldi bat, ederki ezkontzen dena politika zaharrarekin, zera dioena: «*Zerbait betiko luzatu nahi baldin baduzu, sortu batzorde bat*». Ez dugu uste beharrezkoa denik beste batzorde bat egitea, baina uste dugu beharrezkoa dela kontu hau lehenbailehen konpontzea.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Creo que ha quedado bastante clara nuestra posición al respecto, no tenemos mucho más que decir, pero sí creemos que este tema se podría haber llevado en cualquiera de las comisiones que están ya creadas, unas comisiones que podrían dar cabida a cualquiera de los planteamientos que se acaban de decir.

Estas comisiones se reúnen dos veces al mes e incluso se pueden hacer convocatorias extraordinarias, si es necesario; de hecho, podríamos recordar una convocatoria extraordinaria que se hizo un 10 de agosto para no dar las explicaciones sobre este proyecto, y lo digo porque a esta comisión asistimos dos personas, ni siquiera asistieron más que una de las tres personas que tiene en representación el equipo de gobierno en esta comisión, y se tuvo que suspender por falta de quórum.

Por lo tanto, entendemos que cualquiera de las comisiones, por ejemplo la de urbanismo, podría dar cabida a este tema sin la necesidad de crear una comisión "ad hoc" y de hecho hay una frase muy acorde a la vieja política que dice que "*si quieres que algo se demore eternamente crea una comisión*". No creemos que sea necesaria otra comisión pero lo que creemos que es necesario es resolver esto cuanto antes.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Kasu honetan, jakin nahiko nuke zertarako sortzen den batzorde bat; izan ere, ikusi berri dugu dagoeneko hasita dagoen prozesu bat hasi nahi dela, eta orain ikusten dugu batzorde bat sortu behar dela. Baina inork ez du azaltzen zertarako sortu behar den, «*herri-galdeketaren prozesua aztertzeko batzordea*» baino ez. Norbaitek gehiago zehatz dezake kontua? Izan ere, orokortasunetatik harago, batzorde hau sortzearen aldekoek ez dute esaten zehatz-mehatz zertarako nahi duten.

Zein da prozedura hori? Zer urrats eman behar dira, eta zer izapide zehaztu behar dira batzorde horretan? Entzun dugu batzorde bat sortu behar dela izapideak legeak zehaztutako moduan egiteko. Norbaitek esan dezake zein diren legeak zehazten dituen izapide horiek? Gustatuko litzaiguke herritarrei azaltzea egiaz zertarako den batzorde hori. Galdera bat egiteko? Galdera badaukagu. Data bat zehazteko?

Ipin dezakegu data bat batzorde bat sortu beharrik gabe. Joan deneko bi urteotan eskatzen ari garen eta oraindik ere eskatu ez den txosten juridiko bat eskatzeko? Mesedez, eskatuko nieke batzorde berezia sortzearen aldeko botoa eman behar duten Alderdiei azal diezaietela herritarrei zehatz-mehatz zertarako sortu nahi duten batzordea.

Tokiko Erakundeen Legearen 80.4 artikuluak esaten duena da behin sinadurak biltzen direnean, eta kasu honetan sinaduren bidez aktibatu da herri kontsultaren prozedura, Osoko Bilkurari bakarrik dagokiola prozedura hori abiaraztea, eta hori orain dela hilabete egin genuen; beraz, data bat ezartzeko eta eginda dagoen galdera bat egiteko ez da behar batzorde bat, bakarrik behar da data bat jartzea eta bitartean udalari dagokio herri kontsulta hori antolatzea logistikoki, eta kito.

Horretarako ez da batzorde berezi bat egin bat.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk aldeko bozka emango diogu batzordea eratzeari eta bakarrik gauza bat esan gura diot Herriaren Eskubideko Bozeramaleari. Bigarren aldia da abuztuko batzorde famatu hori aipatzen duela, aurrekoan azalpen bat eman

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: En este caso me gustaría saber para qué se crea una comisión, porque acabamos de ver que hay que iniciar un proceso que ya está iniciado y ahora vemos que hay que crear una comisión, pero nadie dice para qué hay que crearla, dice "*comisión para el estudio del procedimiento de la consulta popular*". ¿Alguien puede concretar más? Porque más allá de generalidades, quienes están a favor de crear esta comisión no dicen exactamente para qué.

¿Cuál es ese procedimiento, cuáles son esos pasos que hay que dar y esos trámites que hay que concretar en esa comisión? Hemos oído que se cree una comisión para hacer los trámites tal y como marca la ley ¿alguien nos puede decir cuáles son los que marca la ley? Nos gustaría que a la ciudadanía se le explique verdaderamente para qué va a ser esta comisión, ¿para hacer una pregunta? Ya hay una pregunta ¿Para poner una fecha?

Podemos poner una fecha sin tener que constituir una comisión ¿Para pedir un informe jurídico que lleva pedido dos años y no se ha pedido hasta ahora? Por favor, rogaría a los Grupos que van a votar a favor de crear esta comisión especial que le digan a la ciudadanía exactamente para qué la crean.

Lo que afirma el artículo 80.4 de la Ley de Entidades Locales de Euskadi es que, una vez reunidas las firmas, tal y como se ha activado el procedimiento de la consulta popular, corresponde exclusivamente a la sesión plenaria su puesta en marcha, y esto lo hicimos hace un mes. Por tanto, no hace falta constituir una comisión para definir una fecha y para formular una pregunta que ya está formulada; lo único que hace falta es acordar una fecha, y corresponde al Ayuntamiento organizar la logística para la consulta. Eso es todo.

Para esto, no hace falta una comisión extraordinaria.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros anunciamos nuestro voto favorable a la creación de la comisión, y tan solo quisiera decirle una cosa al Portavoz de Herriaren Eskubidea. Se trata de la segunda vez que menciona la famosa comisión celebrada en agosto. La última ocasión, di una explicación –a ver si se

nuen, ia oroimena duen, eta eskatu egingo nioke berak azaltzea zergatik bertaratu ez zen zegokion zinegotzia EAJren aldetik, hau da, ni neu.

Ondo dago adibideak ipintzea, baina egizu memoria eta esaguzu eta esaiezu besteei ere zergatik ez nintzen joan.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Berriro ere aipatu dira hirugarren puntuan prozedura abiaraztearen alde bozkatu duten alderdiak, eta kontsulta egiterik nahi ez dugun alderdiak. Bakoitzak bere argudioak izango ditu, bere ideiak eta modurik egokiena, batetik, bizkortasun osoa emateko eta, bestetik, araudi eta lege guztiak betetzeko.

Hirugarren puntuaren aldeko botoa eman dugunok gogorarazi behar diegu durangarrei hainbat direla batzorde baten bidez lan egitearen arrazoiak: araudia betetzea, bizkortasuna ematea eta lehendik diren batzordeetan ez galtzea, eta, horrez gain, batzorde horretan Erabaki plataformako bi kideri sartzen uzteko aukera eskaintzea.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Argitu nahiko nuke Erabaki plataformako kideak gonbida daitezkeela edozer batzordetara. EAJren Bozeramaileari dagokionez, egia da aipatzen dudan bigarren aldia dela, uste dut ez dagokidala niri azalpenak ematea zergatik ez zen joan, ni hantxe izan bainintzen. Sei ordu baino gehiago autoz bidaiatu ostean, batzorde horretara azaldu nintzen; hau da, ahalegina egin nuen, nire erantzukizuna delako, nahiz eta nik ez nuen deitu batzorde hura.

Zure Alderdiak deitu zuen, hamar ordezkari dituenak, eta haietatik hiruk agertu behar zuten batzorde hartara. Baina pertsona bakarra agertu zen, eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiot agertu izanagatik. Baina bi besterik ez ginen, eta quoruma hiru lagunekoa da. Nire Taldeak ahalegina egin zuen pertsona bat bertan izan zedin; zuek deialdia egin, eta gu agertu. Eta, ondoren, zuek agertzen ez bazarete, bada zuek eman azalpenak.

acuerda–, y le solicitaría que, en un ejercicio de memoria, explicara por qué se ausentó la concejala del PNV, es decir, yo misma.

Está bien poner ejemplos, pero haga usted memoria y díganos, y dígaselo al resto, por qué no pude acudir.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Se menciona nuevamente a los partidos que hemos votado en el punto tres a favor del inicio del procedimiento como los que no queremos realizar la consulta. Cada uno tendrá sus argumentos, sus ideas y la forma más conveniente para, por un lado, dar toda la agilidad y a su vez el cumplimiento de toda la normativa y la legislación.

Recordemos a los durangueses quienes hemos votado a favor en el punto tres y la forma de trabajar a través de una comisión es precisamente para que, además del cumplimiento de la normativa, se le dé agilidad y no se pierda en otras comisiones ya existentes, además de la ventaja que puede suponer la incorporación a esta nueva comisión a los dos componentes de la plataforma Erabaki.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Aclarar que a cualquier comisión se puede invitar a los componentes de Erabaki. En cuanto a la Portavoz del PNV, es verdad que es la segunda vez que lo comento, creo que no soy yo quien tiene que dar explicaciones de por qué no fue porque yo sí que fui, de hecho, después de un viaje de más de seis horas en coche asistí a esa comisión, es decir, hice un esfuerzo porque es mi responsabilidad pese a que yo no fui quien convocó esa comisión.

La convocó su Partido, que tiene diez representantes de los cuales tres deberían haber asistido a aquella comisión y asistió una persona a la que también agradezco que estuviera allí. Pero éramos dos personas y el quórum son tres. Mi Grupo hizo el esfuerzo de que una persona asistiera; ustedes convocan, nosotros asistimos, y si luego ustedes no asisten den ustedes las explicaciones.

Baina ez naiz orain kontu honekin nahastuko, garrantzitsuena baita gaur hona ekarri gaituen gaia lantzea, hau da, batzorde bat sortzea herri-galdeketa egiteko.

Batzorde hori sortzearen kontra gaude, modu askoz ere soilagoak eta bizkorragoak baitaude horretarako; bide horrekin jarraitu nahi baduzue, azal ezazue. Gure proposamena modu soilagoan egitea da.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu):** Bigarren txanda, eta inork ere ez du zehaztu zertan datzan prozedura hori, ezta batzorde berezia zertarako sortuko den ere. Nik, zinegotzia izanda ere, ez daukat arrastorik ere zertarako deituko gaituzten *ad hoc* sortutako batzorde horretara, herri-galdeketaren prozedurarako.

Alderdi Popularreko zinegotziak zioen ezinbestekoa zela durangarrei gogoraraztea nork emango duen botoa prozesua abiaraztearen alde eta nork bozkatuko duen batzordea sortzearen alde. Behin baino gehiagotan azaldu dugu, baina ez dago soberan durangarrei kontu bat gogoraraztea: Alderdi Popularrak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak eurek onartutako prozesu bat berrikusteko prozesuaren alde bozkatu dutela; Eusko Alderdi Jeltzaleak 2006an onartu zuena, bere aldeko botoarekin eta Alderdi Popularraren abstentzioarekin, oraindik ere mahai gainean dugun arazo bat da. Proiektu horrek gaur egun ekipamendu komunitarioa erabiltzen jarraitzen du, eliza bat, Alderdi Popularraren aldeko botoari esker.

Ez zaigu ahazten proiektu hau daukagula; izan ere, orain lau egunera arte, berrikusi beharra dagoela defendatzen ari direnek eta partaidetza-prozesu bat abiarazteko premia aldarrikatzen dutenek zioten proiektu estrategikoa zela Durangorako. Eskerrak eman beharra zegoen ETSri Durangoren alde egin zuen ahalegin handiagatik eta abar.

Ez zaigu ahazten, eta esan nahiko nuke sinesgarritasun handia kentzen diola egiten ari zareten guztiari.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Batzordea sortzearen aldeko botoa berresten dugu. Batzordea ez da sortuko inolako gaiak moteltzeko, baizik eta gauzak ondo egiteko. Ez da lehendabiziko aldia batzordeak *ad hoc* sortzen direna; beste erakunde batzuetan

Pero no me quiero liar con este tema porque lo importante es hablar de lo que hoy se ha traído aquí, que es la creación de una comisión para una consulta popular.

Estamos en contra de la creación de esta comisión porque hay formas mucho más sencillas y más rápidas de hacerlo, si quieren seguir con este camino explíquenlo ustedes, nuestra propuesta es hacerlo más sencillo.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu):** Segunda ronda y nadie concreta en qué va a consistir ese procedimiento, ni para que se crea una comisión especial. Yo, que soy concejal, no tengo ni idea de para qué se nos va a convocar a esa comisión "ad hoc" para el procedimiento de la consulta popular.

El concejal del Partido Popular decía que había que recordar a los durangueses quiénes van a votar a favor de iniciar el proceso y quién va a votar a favor de crear esta comisión. Lo hemos dicho más de una vez, pero no está de sobra recordarle a los durangueses y a las duranguesas que el Partido Popular y el Partido Nacionalista Vasco han votado a favor de iniciar un proceso para revisar un proceso que ellos aprobaron, el Partido Nacionalista Vasco con su voto a favor y gracias a la abstención del Partido Popular en el año 2006, a día de hoy es un marrón que tenemos encima de la mesa. Un proyecto que a día de hoy sigue teniendo la utilización de un equipamiento comunitario, como una iglesia, gracias al voto a favor del Partido Popular.

No se nos olvida que tenemos este proyecto, porque hasta hace cuatro días quienes ahora están diciendo que hay que revisarlo y que hay que iniciar un proceso de participación, era el proyecto estratégico para Durango, había que darle gracias a ETS por el gran esfuerzo que había hecho por Durango, etc.

No se nos olvida, y simplemente decirles que le quita muchísima credibilidad a todo lo que estáis haciendo.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Nos reiteramos en nuestro voto a favor de crear la comisión. La comisión no se va a crear para ralentizar ningún tema, sino para que las cosas se hagan bien. No es la primera vez que

beste alderdiek ere ez dute inolako zalantzarik izaten halakoak eskatzeko, eta iruditzen zait horrek ez duela inoiz ezer moteldu.

Eta Herriaren Eskubidearen Ordezkariari erantzuteko, gogoraraziko nioke oso ondo dagoela memoria izatea harria botatzeko eta ondoren eskua ezkutatzeko, eta azalpenak, noski, eman behar dituenak eman behar dituela. Oso ondo dago, era berean, hitz politak izatea besteren lana bateragarri egin behar denean, eta gogoratzen dut nik neuk nola esan nuen hemen lana sortu zitzaidala –ni falta izan bainintzen–. Eta azaldu nuen, hortaz, ezin izango nintzela etorri.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hauxe onartzen du:

**LEHENA**.- Batzorde berezi bat sortzea PERI 1 trenbidearen lurzoruen gaineko herri galdeketa tramitatzeko prozedura eztabaidatzeko eta aztertzeko.

**BIGARRENA**.- Batzorde informatiboan izango den kide-kopurua gainerako batzorde informatiboetan dagoen kopuru bera izango da (7), era honetan, udalbatza osatzen duten alderdi politiko ezberdinen arteko proportzionaltasuna bermatuko da.

se crean comisiones “ad hoc”, incluso en otras instituciones otros partidos no dudan en solicitarlas y creo que eso nunca ha ralentizado nada.

Y por contestar al Portavoz de Herriaren Eskubidea, recordarle que está muy bien tener memoria para echar la piedra y esconder la mano y las explicaciones, evidentemente, las tiene que dar quien las tiene que dar, pero también está muy bien tener bonitas palabras cuando se trata de compatibilizar los trabajos de otros y otras y le recuerdo que en su día yo misma dije aquí porque fui yo la que faltó y excusé mi asistencia porque me salió trabajo.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Abstenciones: NINGUNA.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**PRIMERO**.- Crear una Comisión Informativa Especial destinada al debate y estudio del procedimiento para la tramitación de la Consulta Popular sobre los terrenos del PERI 1 Ferrocarril).

**SEGUNDO**.- El número de miembros que integrarán la comisión informativa será el mismo que el de las restantes comisiones existentes (7), garantizando la proporcionalidad existente entre los distintos grupos políticos representados en la Corporación.

Udalbatzako Alkatea edo presidentea izango da batzorde berezi honen berezko presidentea; nolanahi ere, egitezko presidentzia udalbatzako edozein kiderengan delegatu dezake, betiere, batzorde berezi honen hala proposatuta eta hautaketa egin eta gero.

La Alcaldía o Presidencia de la Corporación, ostenta la presidencia nata; sin embargo, la presidencia efectiva podrá delegarla en cualquier miembro de la Corporación, a propuesta de la propia Comisión, tras la correspondiente elección efectuada en su seno.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Lehen aipatu izan dugun moduan, puntu honetan bozkatuko dugu mozioa sartzearen urgentzia eta ostean mozioan sartuko gara.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como hemos mencionado antes, en este punto votaremos la urgencia para incluir el asunto en el orden del día y, a continuación, abordaremos el mismo.

BOZKETA egin ostean, aho batez onartzen da puntu honek sartzea gaurko bilkuran.

PREVIA votación realizada al efecto, se aprueba, por unanimidad, la incursión de este punto en el orden del día de la presente sesión.

**B)- ERABAKI PLATAFORMAREN IZENEAN UNAI VALLE SARASQUETA JAUNAK AURKEZTUTATO MOZIOA, TRENBIDEA HERRIKO KONTSULTAREN EGITERA ARTE PERI-AREN LANEN PARALIZATZEARI BURUZKOA.**

**B)- MOCIÓN PRESENTADA POR DON UNAI VALLE SARASQUETA, EN REPRESENTACIÓN DE LA PLATAFORMA ERABAKI, RELATIVA A LA PARALIZACIÓN DE LAS OBRAS DEL PERI FERROCARRIL HASTA LA EJECUCIÓN DE LA CONSULTA POPULAR.**

* **Mikel Urigüena Ruiz jaunak (Erabaki Plataforma)** Mozioa irakurri du:

"*Badira aste batzuk Durangoko udalak tramitera onartu zuela trenbideko lurren erabilerari buruzko herri galdeketa egiteko prozesua. Gai honetarako batzorde espezifiko bat sortu den arren prozesua denboran luzatzen ari dela uste dugu.*

*Gobernu taldeak galdeketa egiteko benetako asmo zintzoa eta serioa baldin badauka, ERABAKI plataformatik uste dugu martxan dauden lanak gelditu beharko liratekeela.*

*Galdeketaren bitartez hiritarrek egungo proiektua gelditzea erabakiko balute eta honek ondorio ekonomikoak ekar ditzakeela jakinik, ez dugu zentzuzkoa ikusten eta ez dugu ulertzen lanekin jarraitzea.*

*Hau dela eta trenbideko lurretan egiten ari diren lanak galdeketa egin arte bertan behera uztea*

* **Don Mikel Urigüena Ruiz (Plataforma Erabaki)** da lectura a la Moción:

"*Han pasado varias semanas desde que el ayuntamiento de Durango llevó a trámite el proceso para realizar una consulta popular sobre los terrenos del tren y aunque se ha aprobado la creación de una comisión específica para este asunto, consideramos que este proceso no hace más que dilatarse y alargarse en el tiempo.*

*Desde la plataforma ERABAKI consideramos que si realmente hay intención por parte del equipo de gobierno de realizar la consulta de manera seria y sincera, se deberían de parar las obras que actualmente están en marcha.*

*Continuar con las obras puede traer consecuencias económicas en el caso de que en la consulta la ciudadanía decidiera parar el actual proyecto y apelando al sentido común no entendemos por que se sigue con la ejecución de las mismas.*

*Por lo tanto, solicitamos al ayuntamiento la paralización de las obras que se están llevando a cabo*

*eskatzen diogu udaletxeari.*
*Herri galdeketaren alde, obrak gelditu*!"

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **García Martin jaunak PSE-EE (PSOE)**: Nire botoari buruzko azalpen bat eman nahiko nuke. Erabaki eskatzen ari dena nik irailean eskatu nuen, Udalean aurkeztu nituen alegazioekin. Bi eskaera egiten nituen: bata, erreferenduma egiteko, eta, bestea, obrak geratzeko. Ikusten dut honekin eskatzen nuen guztia betetzen dela; beraz, Erabakik aurkeztutako mozioaren alde bozkatuko dut.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Aurretik aipatu den Hirigintza Batzordean, bulego teknikoko Aholkulari Juridikoak baieztatu zuen guk genioena; hau da, obrak geraraztearen ondorioz, etorkizunean ez dela kalte-ordain gehiago izango, kontsulta egin bitartean egin litezkeen obrengatik. Erabat logikoa iruditzen zaigu, eta iruditzen zait obra horiek geratu egin behar direla, herritarren eskubideak bermatzeko eta defendatzeko eta kontsultaren aukera defendatzeko.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu Erabaki plataformari eta berak egindako lanari. Lan horri esker orain dela hilabete batzuk ezinezkoa zena orain posible bihurtu da, proiektua berraztertzea.

Ulrich Beck aipatuko dut, dagoeneko hilda dagoen soziologo entzutetsua. Hona hemen zer esaten zuen: *«Politikoki, herritarren erakundeek hartu dute boterea; haiek ezarri dituzte, sendotutako alderdien erresistentziaren aurrean, mehatxatutako mundu baten gaiak eguneko gai-zerrendan. Etorkizuneko gaiak ez datoz gobernatzaileen presbiziatik, Parlamentuaren eztabaidetatik, eta, jakina, ezta ekonomiaren, zientziaren eta alorreko boterearen katedraletatik ere»*.

Esaldia orokorra da, baina Durangon antzeko zerbait gertatu da; hau da, zerbait aldatzea lortu baldin badugu, azken hilabeteotan durangarrak mobilizatu izanari esker izan da, eta Erabaki pla-

*en los terrenos del tren hasta que se realice la consulta.*
*A favor de la consulta popular ¡Parad las obras*!."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garcia Martin PSE-EE (PSOE)**: Quisiera dar una explicación al voto que voy a dar. Lo que está pidiendo Erabaki yo lo pedí en el mes de septiembre con las alegaciones que metí en el Ayuntamiento. Hacía dos peticiones: una, que se realizara el referéndum y, otra, que se paralizaran las obras. Veo que con esto se cumple todo lo que yo estaba pidiendo, por lo tanto votaré a favor de la moción presentada por Erabaki.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: En la anteriormente citada Comisión de Urbanismo, el Asesor Jurídico de la oficina técnica vino a confirmar lo que se decía, que es que la paralización de cualquier obra hará que no haya posibilidad de nuevas indemnizaciones futuras por las obras que se puedan hacer hasta que se haga la consulta. Nos parece absolutamente lógico y nos parece que se debe de llevar a cabo esta paralización para garantizar y defender los derechos de la ciudadanía y la posibilidad de la consulta.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: En primer lugar, quisiera agradecer a la plataforma Erabaki, por la labor realizada. Gracias a su empeño, lo que hace unos meses parecía inalcanzable es a día de hoy posible; se trata de la reconsideración del proyecto.

Voy a citar a Ulrich Beck que es un reconocido sociólogo ya fallecido que venía a decir de forma general: *"Políticamente las instituciones ciudadanas han tomado el poder, han sido ellas las que, frente a la resistencia de los partidos establecidos, han impuesto en el orden del día los temas de un mundo amenazado. Los temas del futuro no provienen ni de la presbicia de los gobernantes ni de las discusiones del Parlamento ni tampoco, por supuesto, de las catedrales del poder en la economía, la ciencia y el estado"*.

La frase es general, pero en Durango ha sucedido algo similar, es decir, si se está consiguiendo cambiar algo es gracias a la movilización ciuda-

taforma da horren erakusle. «*Solidoa den oro desagertu egiten da airean*», zioen beste pasarte ezagun batek. Eta horixe gertatu da, hori gertatu dela dirudi: hormigoizko bloke solidoak, mugiezinak ziruditenak eta orain aste batzuetaraino alda ezin zitezkeenak, badirudi orain berriro planteatzen ari garela.

Berraztertu daiteke eta gaur goizean Alkateak irratian aipatu du. Hamar urte baino gehiago eman dute konturatzeko; izan ere, orain hilabete gutxi esaten zuten ezin zitekeela mugitu, beharrezkoa zela Durangorako, estrategikoa, eta askoz ere gauza gehiago. Ondoren, Alkate andrearen eta Sailburu andrearen arteko amodio-gutun horiek etorri dira, esanez orain guztia plantea daitekeela berriro, eta ikusiko dela zer egin. Kazetariak berak galdetu die zertarako eman behar zaion buelta gehiago, zergatik ez den egiten parke bat oraintxe.

Hemen bueltaka eta bueltaka ari gara etengabe. Aldaketa hori eta proiektu hori berriro pentsatzeko aukera ez da gobernatzaileen presbiziaren ondorio, are gutxiago kasu honetan. Egiten ari direna zera da, luzatzeko maniobrak. Benetako asmoa hori bada, gaur hemen eta mozio honekin *proba zorrotza* egingo da. Gauzak berriro pentsatzeko borondaterik baldin bada, logikak esaten digu geratu egin behar dela, eta ez dela egin behar urrats gehiago.

Aukera izan zen uztailean probatzeko, lehenik eta behin Hirigintzako Zinegotziari eskatu zitzaionean ez sinatzeko urbanizazio-dekretua, ikusirik kontsulta-eskabide bat zegoela martxan. Eta dekretuz egin zuen. Eta izan zen beste aukera bat ere, uztailean Erabakik geratzeko aurkeztu zuen mozioarekin, eta orduan ere ez zen egin.

Esan den moduan, proiektu hori beste garai batekoa da eta gaur egun ez da bideragarria, beraz, argi dago birpentsatu behar dela, eta hori askotan eskatu dugu eta hori da mahai gainean dagoena. Birpentsatzeko beharrezko baldintza da aurrerapauso gehiagorik ez ematea.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: EAJk mozio alternatiboa dauka. Mozioa irakurri du:

*"Urbanizazio proiektuak herrien antolaketarako*

dana de estos últimos meses en Durango, y Erabaki es una muestra de ello. "*Todo lo sólido se desvanece en el aire*", era otra cita conocida, y eso ha pasado, parece que está pasando, los bloques sólidos de hormigón, que eran inamovibles y no se podían cambiar hasta hace unas semanas, ahora parece que todo se puede replantear.

Se puede reconsiderar, y esta misma mañana la señora Alcaldesa lo ha confirmado en la radio. Les ha costado más de 10 años darse cuenta porque hace unos meses decían que era una cosa que no se podía mover, que era una cosa necesaria para Durango, estratégica y muchas cosas más. Luego han venido esas cartas de amor entre la Alcaldesa y la Consejera, en la que dicen que ahora se puede replantear todo y ver que se va a hacer. El propio periodista le ha preguntado que para qué darle más vueltas, por qué no se hace un parque ya.

Aquí lo que se está haciendo continuamente es darle vueltas y vueltas. No se debe ese cambio y la posibilidad de repensar ese proyecto a la presbicia de los gobernantes, en este caso menos todavía. Lo que están haciendo son maniobras dilatorias. Si son estas las intenciones reales, hoy aquí, con esta moción, tenemos "*la prueba del algodón*", si realmente hay voluntad de repensar las cosas, la lógica dice que hay que parar y no dar más pasos.

Hubo oportunidad de probar esto en julio, primero cuando se le pidió a la Concejala de Urbanismo que no firmase el decreto de urbanización habiendo una petición de consulta en marcha, y lo hizo por decretazo. Y hubo otra oportunidad con la moción que Erabaki presentó en julio pidiendo la paralización y tampoco se hizo.

Como hemos afirmado, se trata de un proyecto de otros tiempos y, a día de hoy, no es viable. Por tanto, está claro que hay que reconsiderarlo; es algo que hemos solicitado muchas veces y es lo que tenemos sobre la mesa. Y la condición necesaria para la reconsideración del proyecto es no dar más pasos.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: EAJ/PNV tiene una moción alternativa. Da lectura a la Moción:

*"El proyecto de urbanización es un instrumento*

*aurreikuspenak exekutatzea ahalbidetzen duten tresna juridikoak dira. Ez dira antolaketaren parte, berau exekutatzeko tresna dira.*

*Hirigintza arloan, udalek ezin dute hiri antolamenduaren eta haren exekuzioaren legezko izaera albo batera utzi. Ez dago diskrezionalitaterik. Lizentziak eta onarpenak emateko egin gura den jarduera indarrean dagoen hiri-ordenamendura egokitu behar da.*

*Aplikagarria den ordenamendu juridikoak ez du barneratzen herri galdeketa bat egiteagatik obra batzuk geldi daitezkeenik, ezta prozedurak bertan behera gelditu daitezkeenik ere. Horrez gain, tokiko araubideak exijitzen duenez, erabakiak hartu aurretik tramitazio administratibo bat egon behar da, eta ez da horrelakorik egon kasu honetan. Ez da administrazio-espedienterik sortu horretarako (ez dago txosten tekniko ez juridikorik, ezta informazio batzordeko irizpenik ere...)*

*Mozioa dagoen moduan onartzea jarduera ageriki ilegala da, erabat deuseza, ez baitira batere kontuan hartu ezarrita dagoen lege-prozedura ezta organu kolegiatuen borondatea eratzeko beharrezko arauak jasotzen dituzten araudiak ere.*

*Horrez gain, hirigintza araudiak aintzat hartzeko betebeharra hautsiko genuke, hori egiten gabiltzala jakinik, eta araudi horiek ez betetzeak erantzukizun penalak ekar litzazke.*

*Hala, prebarikazioaren araudiak berariaz babesten du botere publikoa ondo egikaritzea. Izan ere, zuzenbide estatu baten ezin daiteke botere publikoa era arbitrario baten erabili, nahiz eta arrazoia interes publikoko helburu bat edo herritarrentzako onura bat lortzea izan. Hau da: jokaera batekin kontzienteki arau-hauste larri bat egingo bagenu, emaitza bidegabea edo arbitrarioa izango litzateke. Beraz, erabakiak dakartzan kontraesanen jakitun egotea boterea arbitrarioki erabiltzea da.*

*Hartu beharreko erabakiak hartu behar diren jarduera eremua nahiko konplexua da lege ikuspuntutik, eta ez da erraza beharrezko alderdi guztiak zehaztasunez analizatzea eta aztertzea jarduera guztiak indarrean dagoen legearen araberakoak*

*jurídico que posibilita la ejecución de las previsiones de planeamiento. No forma parte del planeamiento sino que es un instrumento de ejecución de éste.*

*En el ámbito del urbanismo, los Ayuntamientos no pueden obviar el carácter reglado de la actividad de planeamiento y su ejecución. No hay discrecionalidad. Las licencias y aprobaciones se otorgan según la actuación pretendida se adapte o no a la ordenación urbanística vigente aplicable.*

*El Ordenamiento Jurídico aplicable no habilita la realización de una consulta popular como causa de paralización de obras ni de suspensión de procedimiento alguno. Por otra parte, la legislación de régimen local exige, como paso previo a la adopción de acuerdos, la realización de una tramitación administrativa que no se ha dado en este caso. No existe expediente administrativo incoado al efecto (ausencia de informes técnicos y jurídicos preceptivos, dictamen de la Comisión Informativa... ).*

*La aprobación de la moción en los términos expuestos conlleva un acto manifiestamente ilegal y nulo de pleno derecho, ya que se ha dictado prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legal establecido y de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad de los órganos colegiados.*

*Constituye, asimismo, una infracción, a sabiendas, de las obligaciones de observar la normativa urbanística, cuyo incumplimiento podría generar una responsabilidad penal.*

*A estos efectos, el correcto ejercicio del poder público, que en un Estado de Derecho no puede utilizarse de forma arbitraria ni siquiera bajo el pretexto de obtener un fin de interés público o beneficioso para los ciudadanos, está expresamente protegida por la figura legal de la prevaricación. Es decir, cuando las conductas suponen de manera consciente y grave un ataque a las normas infringidas nos hallamos ante una resolución injusta y/o arbitraria. Ese conocimiento de la contradicción del acuerdo equivale a un ejercicio arbitrario del poder.*

*El ámbito de actuación en el que deben adoptarse las oportunas decisiones es suficientemente complejo desde el punto de vista legal como para tratar de analizar y estudiar con detalle y precisión todos y cada uno de los aspectos necesarios para que todas las actuaciones sean con-*

*izan daitezen.*
*Ildo horretatik, berariazko batzorde bat sortzearen oinarrizko helburuak dira prozesuaren legezkotasuna bermatzea, herri-galdeketa egoki egitea erdiestea eta prozesuan balizko atzerapenik ez baliogabetasunik ez eragitea. Horretarako, besteak beste, batzordeko kide izan beharko dira lege-helburu horiek bermatzeaz arduratuko diren pertsonak: udaleko idazkaria, kontuhartzailea eta udal arkitektoa.*

*Hortaz, batzordeak bere lan egutegia zehaztuko du, eta adostu beharko da zeintzuk diren hartu beharreko neurriak (txostenak eskatzea, agerraldiak eskatzea, etab.), aztertu ahal izateko herri-galdeketa egiteko aukerek, besteak beste, zer ondorio izan ditzaketen, bai lege arlokoak, eta baita ondare eta hirigintza arloetakoak ere.*

*Horregatik guztiagatik, proposatzen dugu:*

1. *Urbanizazio proiektua berme guztiekin exekutatu ahal izateko beharreko jarduerak egiten jarraitzea.*

2. *Gaia landuko duen batzordeari eskatzea azter ditzala beharrezko alderdi guztiak, jarduera guztiak indarrean dagoen ordenamendu juridikioa beteta egin daitezen*."

*forme a la legalidad vigente.*
*Es por ello que la creación de la comisión ad hoc tiene el objetivo fundamental de garantizar la legalidad del proceso, la correcta consecución de la consulta y no dar lugar a posibles retrasos o a la nulidad del proceso. Para ello, entre otros, deben tomar parte en dicha comisión, quienes garantizan estos objetivos de legalidad: el Secretario Municipal y el Interventor, además del Arquitecto Municipal.*

*A estos efectos, la comisión establecerá su calendario de trabajo, consensuando todas las medidas necesarias (solicitud de informes, comparecencias etc.) para analizar y valorar las repercusiones legales, patrimoniales, urbanísticas etc. de las distintas opciones que deban contemplarse en la consulta.*

*Por todo ello, se propone:*

1. *Continuar desarrollando las actuaciones necesarias para ejecutar el proyecto de urbanización con todas las garantías.*

2. *Instar a la comisión ad hoc para que proceda con el estudio y análisis pormenorizado de todas las cuestiones necesarias al objeto de que todas las actuaciones sean de conformidad con el Ordenamiento Jurídico vigente."*

* 1. Alkateordea **Ríos Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Guk emandako hitzari eutsiko diogu, baina argi dago Talde Sozialistan bi jarrera izango direla.

Nik, nire aldetik, hasieratik esan dugunari eutsiko diot: kontsulta egitea nahi dugu, baina legezko berme guztiekin egitea. Eta, horretarako, legeak dioenari heldu behar diogu; hala egin ezean, Basaurin gertatu zen kontu bera gertatuko zaigu guri ere: prozedura aurkaratu eta deusez aitortuko dutela. Prozedura egokiro egin ezean, ezin izango da ondo gauzatu.

Berriro diot testua babestuko dugula, hain zuzen, kontsulta hori egiteko beharrezko jarduera guztiak garatuko ditugula dioen testua, legeak ezartzen duen moduan.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Vamos a mantener la palabra que hemos dado, pero es evidente que en el Grupo Socialista va a haber dos posiciones.

Yo por mi parte voy a mantener lo que hemos dicho desde el principio, queremos que se lleve a cabo la consulta pero que se haga con todas las garantías legales, y para ello nos tenemos que ajustar a lo que establece la ley, sino nos ocurrirá lo mismo que ocurrió en Basauri, que impugnaron el procedimiento y fue declarado nulo. Sin el procedimiento adecuado no se llevará a buen término.

Insisto que vamos a apoyar este texto en el que digo que se desarrollarán las actuaciones necesarias para llevar a cabo esta consulta tal y como establece la ley.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Uneotan, ez gara harritzen berriro ere borondate politikorik ez ikustearekin, herritarrek osoko bilkura honetara ekartzen dizkigun eskaerak gauzatzeko. Badakigu badituztela beharrezko erremintak obra horiek geratzeko, Bulego Teknikoko Legelariak berak, gaur hemen dauden pertsona asko eta askoren aurrean, azaldu zuen posible zela egitea; beraz, ez etorri orain beldurrak astintzera.

Egin liteke geldiarazteko legezko erremintak erabilita, baina jarraitu liteke egia erdiak kontatzen, Basauriko kasuan bezala; izan ere, Gobernuaren ordezkariak aurkeztu zuen errekurtsoa, Gobernuaren ordezkariak. Basauriko Udalak epaiketara eraman zuen, eta irabazi egin zuten: Basauriko Alkateak berak adierazi zuen epai horrek babesa ematen ziola herri-galdeketari, egin zen moduan egin izanari.

Ordezko milaka aukerarekin etor zaitezkete, baina gauza bera etorriko da atzera: herritarren borondatea errespetatu gabe jarraituko duzue. Herritarrek orain erremintak dituzte osoko bilkura honetan parte hartzeko, eta horretan ari dira. Eta, behin eta berriz, ukatu egiten zaie aukera hori, ordezko proposamenak aurkeztuz.

Ederki asko dakigu badirela legezko erremintak gerarazteko; borondate politikoa behar da, eta gaur osoko bilkura honetatik irteten diren botoek erakutsiko dute alderdi politiko eta pertsona bakoitzaren borondatea.

* **Del Amo Castro (EH Bildu)**: Orain berriro aurkitzen dugu mozio alternatibo bat, nahiko ohikoa da Gobernu Taldearen aldetik, eta horrekin ikusten da aurreko puntuetan zegoena; ez dago benetako borondaterik kontsulta egiteko eta proiektua aldatzeko.

Gainerako kontu guztiak bazterrak nahasteko beste ezertarako ez dira; mozio bat erakusten digute, prebarikazioa eta halako hitz handiputz mordo bat biltzen dituena, beldurra eragiteko, hala nola Basauriko epaia, gezurrez betea; izan ere irabazi egin zuen. Eta prebarikazioaren kontu horrekin... Dagoeneko ondotxo dakigu prebarikazioaren kontua, kontatu zigun Hirigintzako Zinegotziak, urbanizazio-planaren dekretuaren sinadura justifikatzean. Eta orain zera diogu, urbani-

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: A estas alturas no nos sorprende que nuevamente veamos la falta de voluntad política para llevar a cabo las peticiones que la ciudadanía nos traslada en este pleno. Sabemos que tienen herramientas para llevar a cabo esta paralización, el propio Jurista de la Oficina Técnica delante de muchas de las personas que hoy están aquí reconoció que se podía llevar a cabo, así que no nos vengan metiendo miedo.

Se puede llevar a cabo con herramientas legales para la paralización, pero se pueden seguir contando medias verdades como el caso de Basauri donde el Delegado de Gobierno recurrió la consulta, el Delegado del Gobierno. El Ayuntamiento de Basauri lo llevó a juicio y ganaron el juicio, el propio Alcalde de Basauri dijo que esa sentencia era un espaldarazo a la consulta popular en la manera que se había llevado a cabo.

Pueden venir con infinidad de propuestas alternativas, pero seguirá siendo lo mismo, seguirán sin respetar la voluntad de la ciudadanía. La ciudadanía ahora tiene herramientas para participar en este pleno y lo está haciendo, y una y otra vez, está siendo rechazada con propuestas alternativas.

Sabemos perfectamente que existen herramientas legales para paralizar; es una cuestión de voluntad política, y los votos que hoy salgan en este pleno demostrarán la voluntad de cada partido político y de cada persona.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Ahora presentamos de nuevo una moción alternativa, bastante común por parte del Equipo de Gobierno, y con ello vemos lo que se veía en los puntos anteriores: no hay voluntad política real para celebrar la consulta y modificar el proyecto.

El resto de cosas son para enredar, para hacer ver aquí una moción que tiene un montón de palabrerías de grandes palabros como prevaricación y otras para meter miedo, metiendo miedo con el tema de la sentencia de Basauri diciendo mentiras, cuando en realidad se había ganado y con palabras de prevaricación. Ya nos sabemos el rollo de la prevaricación, lo contó la Concejala de Urbanismo para justificar su firma del decretazo del plan de urbanización. Y ahora decimos que el plan de ur-

zazio-plana onartuta dagoela, noski, korrika eta presaka onartu zenutelako.

Kontsulta berme guztiekin egin nahi da; kontsulta berme etikoekin egin behar da. Eta berme etikoak ez dira kontsulta alferrikako bilakatzen duten urratsak egitea, baizik eta lortu behar da garabirik ez sartzea, urbanismo-planarekin ez jarraitzea eta ez egitea aurrera inolako jarduera batekin ere. Horiek dira berme etikoak; beste guztia, hitz eta pitz.

Konponbide erraza da. Nahikoa da bihar Alkate andreak eta Gobernu-Taldeak Arantza Tapia andreari beste amodio-gutun bat idaztea, Durangoko osoko bilkuraren borondatea azalduz; hau da, ez dugula beste urrats bat egiterik ere nahi, eta guk, Udal gisa, hori eskatzeko ardura dugula.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Jatorrizko mozioa eta ordezkoa dauzkagu, beraz, lehengo ordezkoa bozkatuko dugu eta gero jatorrizkoa.

**Ordezko mozioaren Eusko Aldeldi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:**

- Aldeko botoak: BEDERATZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (Rios Ramos andrea).

**Jatorrisko mozioa Erabaki Plataformaren Unai Valle Sarasqueta jaunak izenean aurkeztutakoa**:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 1 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (Garcia Martin jauna)

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **ONARTU EGIN DU Erabaki Plataformaren izenean Unai Valle Sarasqueta** jaunak jatorrizko aurkezturiko mozioaren testua.

banización está aprobado, claro, porque lo aprobasteis de prisa y corriendo.

Se quiere hacer la consulta con todas las garantías, hay que hacer la consulta con garantías éticas, y garantías éticas son no dar pasos que conviertan la consulta en algo inútil, es decir, no meter grúas, no seguir con el plan de urbanismo y no seguir adelante con ninguna actuación. Eso son garantías ética y el resto es palabrería.

La solución es fácil, no tienen más que, la Alcaldesa y el Equipo de Gobierno, mañana escribirle otra carta de amor a Arantza Tapia diciéndole la voluntad del pleno de Durango es que no deis ningún paso más y nosotros, como Ayuntamiento, es nuestra responsabilidad pedíroslo.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** Tenemos, por tanto, dos mociones. Primero votaremos la alternativa y, a continuación, la original.

**Moción alternativa presentada por el Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**:

- Votos a favor: NUEVE, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (Sra. Rios Ramos).

**Moción original presentada por Don Unai Valle Sarasqueta, en representación de la Plataforma Erabaki**:

- Votos a favor: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 1 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (Sr. García Martín).

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción original presentada por **Don Unai Valle Sarasqueta, en representación de la Plataforma Erabaki**.

**SEI.- HERRIAREN ESKUBIDEA TALDEAREN MOZIOA HIPERSENTIKORTASUN ANIZKOITZ ETA SENTIKORTASUN ZENTRALAREN SINDROMEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2019000913, 2019KO URTARRILAREN 23KOA).**

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)** irakurri egiten du Herriaren Eskubidea Udal Taldeak izenpeturiko mozioa, hipersentikortasun anizkoitz eta sentikortasun zentralaren sindromeari buruzkoa. Sarrera Erregistroa 2019000913, 2019ko urtarrilaren 23koa, eta honako hau dioena:

*"2017ko otsailaren 14an, hipersentikortasun anizkoitzari buruzko adierazpen instituzionala egin zen. Sindrome honek, guztiok gogoratuko dugun moduan, honako gaixotasunak biltzen ditu: sentikortasun kimikoa, fibromialgia, neke kronikoa eta hipersentikortasun elektromagnetikoa. Alderdi politiko guztiek konpromisoa hartu genuen, batetik, gaixotasun hauek pairatzen dituzten pertsonen bizitza errazteko eta, bestetik, aipatutako gaixotasunak prebenitzeko.*

*Konpromisoa hartu genuenetik ia bi urte igaro diren honetan, uste dugu garaia heldu dela berau udalerriko agendan txertatzeko.*

*Konpromisoa gauzatzen aldera, ondorengo ekintzak proposatzen ditugu:*

*1- Adierazpen instituzionala eta konpromisoa berrestea eta, era berean, egin beharreko ekintzak egitea gaixotasun hau pairatzen duten pertsonen bizitza harik eta normalago bilaka dadin. Halaber, Osasunaren Mundu Erakundeak eta Europar Batasunak, kutsadura kimiko eta elektromagnetikoaren inguruan segurtasuna eta prebentzioa bermatzeko aholkatzen dituen ekintzak aurrera eramateko konpromisoa hartzea.*

*2- Udal eraikin publikoen garbiketan gaur egin erabiltzen diren substantziak aldatzeko proposamena eramatea dagokion batzordera, hau da, hipersentikortasun kimikoa pairatzen*

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO HERRIAREN ESKUBIDEA, SOBRE LA HIPERSENSIBILIDAD MÚLTIPLE Y SÍNDROME DE SENSIBILIZACIÓN CENTRAL. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2019000913, DE 23 DE ENERO DE 2019).**

* El Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)** da lectura a la Moción presentada por el Grupo Municipal Herriaren Eskubidea, sobre la hipersensibilidad múltiple y síndrome de sensibilización central, con Registro de Entrada nº 2019000913, de 23 de Enero de 2019, del tenor literal siguiente:

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a hacer una pausa de 10 minutos.

----------

*-- Momentu honetan, 19:32ak direnean, Perez Maeztu jaunak (EH Bildu) irteten da Gela Aretoan.--*

----------

*-- En este momento, siendo las 19:32 horas, abandona la Sala Capitular el Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu).--*

**ZORTZI.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, DURANGOKO BASERRITARREN AZOKAREN ARAUDIA APLIKATZEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2019000929, 2019KO URTARRILAREN 23KOA).**

Euskal Herria Bildu Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Durangoko Baserritarren Azokaren araudia aplikatzeari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2019000929, 2019ko urtarrilaren 23koa, eta honako hau dioena:

"*Durangoko udalak baserritarren azokaren funtzionamendua erregulatzen duen araudia dauka. 2012ko urriaren 23an onartu zen behin betiko. Nolanahi ere, araudia abian jartzeko eta bertan jasotzen dena gauzatzeko eskumena dutenek utzikeria besterik ez dute erakutsi.*

*Horrexegatik, Durangoko udalak hauxe onartzen du:*

1. *Indarrean dagoen araudia aplikatzea.*
2. *Baserritarren mahaia deitzea, egiten ari ziren aurreneko lanekin jarraitzeko eta ekintza plan berria egiteko.*
3. *Aurrekontu partida bat jartzea azokak behar dituen baliabideez hornitzeko eta araudia eta ekintza plana gauzatzeko*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* <u>**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**</u>: *Noticias de Gipuzkoa* aldizkariaren albiste-zati bat irakurriko dut, 2018ko uztailaren 28koa:

> "Azterlan batek hiru plazetako erronkak aztertuko ditu, guztira 3,5 milioi euroko inpaktu ekonomikoarekin.

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU, SOBRE LA APLICACIÓN DEL REGLAMENTO DEL MERCADO DE BASERRITARRAS DE DURANGO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2019000929, DE 23 DE ENERO DE 2019).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, sobre la aplicación del Reglamento del Mercado de Baserritarras de Durango, con Registro de Entrada nº 2019000929, de 23 de Enero de 2019, del tenor literal siguiente:

"*El Ayuntamiento de Durango dispone de un reglamento que regula el funcionamiento del mercado de Baserritarras. Dicha normativa fue aprobada, con carácter definitivo, en el pleno de 23 de octubre de 2012. No obstante, a quienes competía y compete poner en marchar y llevar a cabo dicho reglamento no han hecho otra cosa que dejación de sus funciones.*

*Es por ello que, el Ayuntamiento de Durango acuerda:*

1. *Aplicar la normativa en vigor.*
2. *Convocar la mesa de Baserritarras, para reanudar el trabajo que venía haciendo y realizar un nuevo plan de acciones.*
3. *Crear una partida presupuestaria para dotar de los recursos necesarios, para que dicho reglamento y el plan de acciones puedan ser realizados.*"

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal <u>**Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**</u>: Voy a leer un estacto de una noticia del diario Noticias de Gipuzkoa del 28 de julio de 2018:

> "Un estudio analizará los retos de las tres plazas, que tienen un impacto económico total de 3,5 millones de euros.

Tolosa- Guztira 3,5 milioi euroko inpaktuarekin, Tolosako azoka da tokiko eta eskualdeko ekonomia sustatzen duen motorretako bat. Azokak, halere, erronka berriak ditu aurrez aurre, kontsumo- eta elikadura-ohitura berrien ondorioz. Baina baita bestelako desafioak ere, baserritarren, ekoizleen eta saltzaileen beharrizanak asetzearekin lotuta. Helburu horrekin, Udalak analisi bat abiarazi du, merkatua modernizatzeko eta, hala, egungo eskariei erantzuteko.

Azterlanak azoka egiten den hiru espazio nagusiak biltzen ditu: Euskal Herria plaza, Berdura plaza eta Zerkausia. Hori hala, ekainean eman ditu lehendabiziko urratsak, guztia ere Tolomendi Landa Garapen Elkartearekin eta saltzaileekin eurekin adostuta, zeinak tankera horretako analisi bat ari baitziren eskatzen. «*Alde batetik, aldaketak gertatu dira kontsumo-ohituretan, eta, bestetik, baserritarren, ekoizleen eta saltzaileen beharrizanetan. Hainbat aldaketa mamitsu gertatu dira erosteko ohituretan, eta, espazio eta teknologia berriak direla eta, bestelako profilak sortu dira bezeroei dagokienez, bezero askoz ere ugariagoak. Erantzunak, hortaz, globala izan behar du, ahalik eta bizkorrena eta osoena, aro berrira egokitzeko, eta erreminta hori azterlan honetatik eratorritako diagnostikoarekin eta ondoren hartutako neurri zehatzak biltzen dituen jarduera-planarekin osatuko dugu*», azaldu zuen Merkataritza, Azoka eta Turismoko zinegotziak.

Tolosa- Con un impacto económico de 3,5 millones de euros, el mercado de Tolosa es uno de los motores que propulsa la economía local y comarcal. El mercado, sin embargo, se enfrenta a nuevos retos derivados de las nuevas formas de consumo y de alimentación, pero también otro tipo de desafíos dirigidos a satisfacer las necesidades de los baserritarras, productores y vendedores. Con este fin, el Ayuntamiento ha iniciado un análisis para modernizar el mercado y responder a las demandas actuales.

El estudio, que abarca los tres espacios principales del mercado; es decir, Euskal Herria plaza, Berdura plaza y Zerkausia, ha dado sus primeros pasos este mes de junio, y su realización ha sido consensuada junto con la asociación Tolomendi Landa Garapen Elkartea y los propios vendedores, que reclamaban un análisis de este tipo. *"Por una parte, ha habido un cambio en los hábitos de consumo y, por otra, un cambio en las necesidades de los baserritarras, productores y vendedores. Se han dado variaciones sustanciales en la manera de comprar, y han surgido, debido a los nuevos espacios y las nuevas tecnologías, otros perfiles en cuanto a la clientela, una clientela más plural. La respuesta ha de ser global, la más completa y rápida posible para adaptarnos a los nuevos tiempos, y el instrumento será el diagnóstico derivado de este estudio y su posterior plan de actuación con medidas concretas",* explica la concejala de Comercio, Ferias y Turismo."

Honezkero guztiok dakigu, edo premisa horretatik abiatzen gara, Durango eskualdeburua dela edo hala izateko asmoa duela, eta zerbitzu-hiri bat dela. Ez gara aspertuko esaten, nahiz eta errealitatea bestelakoa izan; izan ere, Gobernu-Talde honek hartzen dituen erabakiak ez dira koherenteak premisa horrekin.

A estas alturas, todas sabemos o partimos de la premisa que Durango es cabeza de comarca o pretende serlo y que es una villa de servicios. No nos cansamos de decirlo, aunque la realidad sea otra; ya que las decisiones que toma este Equipo de Gobierno no son coherentes con esa premisa.

Tolosan bezalaxe, tokiko ekonomiaren traktore izan beharko luke, Durangoren eta Durangaldearen lehen sektorearen bultzatzaile, kontsumo jasangarriaren eta sozialki bidezkoago baten eredu modeliko. Baina hemen ez dago halakorik.

Lo que debería ser un tractor de la economía local, como en Tolosa, del sector primario de Durango y Durangaldea, además de un ejemplo modélico del consumo sostenible y de un comercio socialmente más justo, pues no lo es.

Gure merkatu-plaza ez da ezeren erreferente; bai, agian Euskal Herri osoko merkatu-plaza abandonatuena dela, agian. Eta tamalgarria da; izan ere, badakizue kontu bat? Bada gure merkatu-plaza erreferente dela, bai, baina inork ez daki: gure merkatu-plazak du produktu ekologiko gehien. Baina abandonatuta daukazuenez, inor ez da enteratzen, eta, zoritxarrez, ez da izan beharko lukeen bezalako motorra.

Nuestra plaza del mercado no es referente en nada; bueno sí, de ser la plaza del mercado más abandonada de Euskal Herria. Y es una pena, porque saben qué, que nuestra plaza del mercado es referente, pero nadie lo sabe, por ser la que más puestos de producto ecológico tiene. Pero como la tienen abandonada, nadie se entera y por desgracia, no es el motor que debiera ser.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Uste dut erregelamendua berrikusi eta aktibatu egin behar dugula. Garrantzitsua da baserritarren mahaiarekin harremanetan izatea, eta iruditzen zait indarrean den erregelamendua idatzi eta onartu zenetik kontuan hartu beharreko aldaketak gertatu direla hainbat esparrutan. Eta, ondorioz, beharrezko eguneratzeak txertatu behar ditugu erregelamenduan, adostuta.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Creo que debemos de revisar el reglamento y activarlo. Es importante tener contacto con la mesa de baserritarras y estimo que desde la redacción y aprobación del reglamento vigente se han producido cambios de diferentes ámbitos que debemos tener en cuenta y, en consecuencia, debemos incorporar al reglamento con las actualizaciones necesarias y consensuadas.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**, ordezko Mozioa irakurri du gaztelaniaz:

* La 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**, lee una Moción alternativa, en castellano:

"*El Reglamento de funcionamiento del mercado de baserritarras de Durango ha permitido una convivencia ordenada de las actividades desarrolladas los sábados por la mañana en la plaza del mercado de nuestro Municipio. Dicho objetivo no ha estado exento de complicaciones derivadas de la aplicación del reglamento. La realidad cambiante del sector ha traído consigo la necesidad de replanteamiento de algunas cuestiones que fueron incorporadas y aprobadas en dicho reglamento. A este respecto, no podemos obviar las actuaciones puestas en marcha por este Ayuntamiento en colaboración con Urkiola Landa Garapena para el seguimiento y control del efectivo origen en baserri y de temporada de los productos que se ofrecen en este mercado.*

*Dado que se trata de un ámbito que ha sufrido transformaciones en los últimos tiempos, es preciso adecuar la norma que regula esta actividad de mercado. Por todo ello, el Ayuntamiento de Durango acuerda:*

1. *Iniciar los trámites necesarios para proceder a la revisión del Reglamento del Mercado de Baserritarras.*

2. *A estos efectos, se abrirá un periodo de consultas a los agentes implicados, entre los que deberán consultarse con prioridad tanto a la Mesa de Baserritarras como a Urkiola Landa Garapena*."

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Guk ez dugu inolako zalantzarik erregelamenduari buelta bat eman dakiokeela; halere, uste dugu ez duela zer ikusirik jatorrizko mozioarekin, zeinak kontu garbi bat eskatzen baitu: baserritarren mahaia deitzea. Legealdi honetako ia lau urteetan, esandako mahai horrek ez du batere bilerarik egin, nahiz eta egungo estatutuek dioten sei hilabetetik behin egin behar direla.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Nosotros no dudamos de que se le pueda dar una vuelta al reglamento, sin embargo, creemos que no tiene que ver con la moción original donde se pide algo tan claro como que se convoque la mesa de baserritarras. En estos casi cuatro años de legislatura no se ha producido ninguna reunión de dicha mesa pese a que los estatutos actuales dicen que han de ser cada seis meses.

Baserritarrek adierazi digute aspalditxo honetan badirela hainbat arazo merkatuaren funtziona-menduan, eta uste dut behin eta berriz, dela Herriaren Eskubideak, dela EH Bilduk, hainbat batzordetan berretsi dugula baserritarren batzorde hori deitzeko premia, aipatu ditugun gai horiek guztiak jorratu ahal izateko.

Baina, berriro ere, nabaria izan da Gobernu-Taldeak ez duela izan borondaterik haiek deitzeko, eta horren aurrean uste dugu ezinbestekoa dela deialdi hau egitea. Hortaz, babestu egingo dugu EH Bilduren mozioa.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**, ordezko Mozioa irakurri du euskaraz:

Las y los baserritarras nos han trasladado hace tiempo algunos problemas que está generando el funcionamiento del mercado, y creo que en repetidas ocasiones, tanto Herriaren Eskubidea como EH Bildu hemos insistido en varias comisiones de la necesidad de convocar esta comisión del mercado de baserritarras para tratar estos asuntos.

Pero nuevamente, la falta de voluntad del Equipo de Gobierno para convocarla ha sido evidente, creemos que es necesaria esta convocatoria y apoyaremos la moción de EH Bildu.

* La 4. Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**, lee una Moción alternativa en euskera:

"*Durangoko baserritarren azoka erregulatzen duen araudiari esker, gure udalerriko azoka plazan zapatu goizetan egiten diren jarduerak era ordenatuan egitea ahalbidetu da. Nolanahi ere, arazo batzuk izan dira araudiaren aplikazioa dela eta. Sektoreak bizi dituen aldaketek, bestalde, araudian jaso eta onartu ziren zenbait aspektu birplanteatu beharra ekarri dute. Honen haritik, ezin ahaztu dezakegu Udalak, Urkiola Landa Garapenarekin batera, abian jarri dituen zenbait ekintza, besteak beste, azokan eskaintzen den jeneroa baserrian bertan sortzen dela kontrolatzeko eta sasoian sasoikoa dela egiaztatzeko.*

*Kontuan izanda esparru honek eraldaketa ugari ezagutu dituela azkenaldian, behar beharrezkoa da azokaren jarduera erregulatzen duen araudia egungo premietara egokitzea. Horrexegatik, Durangoko Udalak hauxe erabaki du:*

1. *Egin beharreko tramiteak egitea baserritarren azoka erregulatzen duen araudia berriztatzeko.*

2. *Honetarako, kontsultak egingo dira eragileen artean eta, batez ere, Baserritarren Mahaia eta Urkiola Landa Garapena lehenetsiko dira kontsultotan*."

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: Ordezko mozioa bitxi samarra suertatzen da; izan ere, zera dio, Durangoko baserritarren merkatuko erregelamenduak *«...ahalbidetu du bizikidetza antolatua izatea gure udalerrian larunbat goizean merkatuplazan antolatutako jardueretan»*. Ahalbidetu du? Baina ez baldin bada egin, horixe ari gara, hain justu, eskatzen: egin dadila, erregelamendua eginda dago, baina ez da inoiz martxan jarri. Nolanahi ere, ez aplikatzearen ondorioz izandako konplikazioak izango dira.

Gu saiatu gara gure merkatu-plaza ez dadin egon dagoen moduan, eta hauxe izan da bizi izan dugun kronologia, 2011n ikusi genuenetik merkatuplazak ezin zuela dagoen moduan jarraitu.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: La moción alternativa resulta, cuando menos, graciosa ya que dice que este reglamento del mercado de baserritarras de Durango *"...ha permitido una convivencia ordenada de las actividades desarrolladas los sábados por la mañana en la plaza del mercado de nuestro Municipio."* ¿Ha permitido? Pero si no se ha llevado a cabo, precisamente eso es lo que estamos demandando, que se lleve a cabo, el reglamento está aprobado pero no se ha puesto en marcha. En todo caso serán las complicaciones derivadas de su no aplicación.

Nosotros hemos tratado de que nuestra plaza del mercado no esté como está y esta ha sido la cronología desde que en 2011 vimos que nuestra plaza del mercado no podía continuar así.

Kronologia:

2011ko uztaila: Mozio bat aurkeztu genuen, baserritarren azokarako erregelamendua sortzeko. Ordurako, salatu genuen merkatu-plazaren egoera tamalgarria. Guk eta baserritarrek.

2012ko urria. Behin betiko onarpena.

2013ko martxoa-abendua:

- Baserritarren mahaia sortu zen (baserritarrak, Durangobai, Urkiola Landa Garapena, eta Durangoko Udaleko ordezkariak, [Idoia, PSEE, eta Iker, Aralar]).
- Ordiziako eta Tolosako azokak bisitatu genituen.
- Eskaria egin zen, merkatuko postuen lizentzia eskatzeko.
- Ekintza-plan bat egin zen.
- Iker Ocejak bat egin zuen mahaiarekin.
- Mahaia erregelamendua martxan jartzeko eskatzen hasi zen.
- Instalazioak egokitzea eskatu zen (elektrizitate-harguneak, sarbide-kontrolak...).

2014ko otsaila-abendua:

- Egiteke dauden obrak.
- Segurtasun-kamerak eta kontaketa egitekoak instalatzea.
- Ebakuazio-plana.
- Arriskuen prestakuntza-plana.
- Baserritarrek su-itzalgailuak ipintzen eta kentzen dituzte...
- Bisitak erakusketen kontrolerako.

Ikuskaritzen ondoren, zuek ondotxo ezagutzen duzuen pertsona bat etorri zen, eta Hirigintza Batzordera etortzen utzi zenioten –beste pertsona batzuek ez zuten halako zorterik izan, eta

Cronología:

2011-Julio: Metimos una moción para crear el Reglamento para el mercado de baserritarras. Ya entonces denunciábamos la situación penosa de la Plaza del mercado. Nosotros y los baserritarras.

2012-octubre: Aprobación definitiva.

2013-marzo-diciembre:

- Constitución de la mesa de baserritarras (Baserritarras, Durangobai, Urkiola Landa Garapena, y representantes del Ayto. de Durango -Idoia-PSEE e Iker Aralar-).
- Visita a los mercados de Ordizia y Tolosa.
- Se elaboró la instancia para la solicitud de licencia de puestos del mercado.
- Se elaboró un plan de acciones.
- Incorporación de Iker Oceja a la Mesa.
- Se empieza a reclamar por parte de la mesa que se ponga en marcha el reglamento.
- Se solicita la adecuación de las instalaciones. (acometida eléctrica, control de accesos...).

2014 febrero-diciembre:

- Obras pendientes de ejecutar.
- Instalación de cámaras de seguridad y que realicen conteo.
- Plan de evacuación.
- Plan de formación de riesgos.
- Los baserritarras ponen y quitan extintores...
- Visitas para el control de exposiciones.

Tras las inspecciones vino una persona a la que ustedes conocen muy bien y a la que le dejaron venir a la comisión de urbanismo -otras personas no tenían tanta suerte, ni lo hacían con tanta

ez zuten halako bizkortasunik jaso–; azaldu zituen kexak, eta harrezkero ez da egin ezertxo ere. Arazo bat ikusi, eta berriro ere ostrukarena: burua ezkutatu.

Utzi hitz hutsalak eta hutsak, eta kontatu, ekintzen bidez, zer egin duzuen merkatu-plazaren alde azkeneko lau urteotan. Nik neuk esango dizut:

2015. Ezer ez.

2016. Ezer ez.

2017. Ezer ez.

2018. Ezer ez; beno, dekretu bat, azterlan estrategiko bat egiteko.

Ez esateko gezurretan ari naizela, ondoren xehatuko dut zer egin nahian zabiltzaten 2018an eta 2019an: makillaje lana, hauteskundeen aurretik.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gai hau aspalditxotik ari da errepikatzen batzordeetan, behin eta berriro hitz egin dugu kontu honi buruz; hasieran, beti bezala, hitz onak izan dira baserritarren mahaia deitzeko. Hilabeteak, urteak joan eta urteak etorri, eta inoiz ere ez da halakorik deitu. Baserritarren merkatuaren erregelamenduaren 32. artikulua irakurri nahiko nuke:

«*Merkatuaren Batzordea arduratuko da baserritarren azoka antolatzeaz eta zuzentzeaz, eta esandako batzordea sei hilabetetik behin elkartuko da. Haien funtzioen artean biltzen dira merkatuaren jarduera-garapena kontrolatzea eta Udala informatzea, merkatua arautzearen kontrako jokabideen inguruan*».

Guri jakinarazi behar izan digute hau gertatzen ari dela, arrazoi garbi batengatik: gobernu-taldea ez delako ari betetzen erregelamendu hori. Ulertzen dugu mozioak eskatzen duena erabat logikoa dela: ipin dadila martxan erregelamendu hori, bete dadila, eta egin dezala bilera batzorde horrek, konponbide bat emateko sortzen ari diren arazoei.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: 2015eko apirilean, mozio bat planteatu genuen erregelamen-

rapidez-, expuso sus quejas, y desde entonces no han hecho nada de nada. Ven un problema y nuevamente la técnica del avestruz, esconder la cabeza.

Déjese de las palabras vagas y vacías, y diga con hechos que han hecho por la plaza del mercado en estos últimos 4 años. Se lo voy a decir yo:

2015: Nada.

2016: Nada.

2017: Nada.

2018: Nada; bueno, un decreto para hacer un estudio estratégico.

Para que no me diga que miento, luego matizaré lo que están intentado hacer en 2018 y 2019: un maquillaje de cara, previo a las elecciones.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Este es un tema que se ha repetido en las comisiones desde hace bastante tiempo, lo hemos hablado repetidamente; al principio, como siempre, ha habido buenas palabras para convocar esta mesa de baserritarras, pasan los meses, pasan los años, y nunca se convoca. Me gustaría leer del propio reglamento del mercado de baserritarras el artículo 32:

"*La organización y dirección del mercado estará encomendada a la comisión del mercado y dicha comisión celebrará reunión cada seis meses. Sus funciones serán, entre ellas, controlar el desarrollo de la actividad en el mercado e informar al Ayuntamiento de la realización de conductas contrarias a las normas reguladoras del Mercado*."

A nosotros nos han tenido que venir a trasladar que se está produciendo esto por el simple hecho de que este reglamento no se está cumpliendo por parte del equipo de gobierno. Entendemos que lo que solicita la moción es totalmente lógico, que se ponga en marcha, que se cumpla este reglamento y que se reúna esta comisión para dar una solución a los problemas que se están generando.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: En abril de 2015 planteamos una moción para solicitar la

dua martxan ipintzeko, eskatuz landu eta eguneratu zedila, beharrezkoa izanez gero. Helburua zen aurrekontu-partida bat ematea, beste ekintza-plan bat egitea... EAJk eta PPk kontrako botoa eman zuten, eta PSE-EE, berriz, abstenitu. Horixe izan zen merkatu-plazaren aldeko zuen apustu bakarra.

Merkataritza sustatzea ez da Eguberrietan deskontu-bonu bat egitea eta urte osoan kontua ahaztea.

Merkataritza eta baserritarren plaza sustatzea ez da Abadiñori alfonbra gorria ipintzea, San Faustorekin batera merkataritza-azalera berri handi bat gara dezaten. Badirudi agortutako ereduekin bizitzea gustatzen zaizuela. Guk, aldiz, 2018ko azaroan, mozio bat aurkeztu genuen, eta onartu egin zen, Udal honek ez dezan sinatu hitzarmen bat Abadiñorekin, eta Plan Orokorraren berrikuspenaren auzia azter dadin, guztion artean erabaki dezagun zer-nolako Durango nahi dugun.

Merkatu-plaza eta merkataritza sustatzea ez da abandonatuta edukitzea; eta ez espazioaren baldintzengatik bakarrik, tamalgarriak baitira, baizik eta baserritarrak eurak ez dituzuelako babestu, albo batera utzi dituzuelako; izan ere, DurangoBairekin batera saiatu ziren dinamizatzen eta ahalegindu ziren tokiko ekonomiaren traktore bihurtzen.

Orain nolabait ere neurriren batekin egoera arintzeko edo hauteskundeetara begira aurpegia garbitzeko, enpresa bat topatu duzue 2018aren amaieran, azterketa estrategiko bat egiteko; orain, azkeneko unean, 12.300 euro gehi BEZ gastatuta. Inorekin ere alderatu gabe; ez DendakBai, ez baserritarrak, ez Urkiola Landa Garapena... Inor ere ez. Tolosaren kasuan, agente horiek eurek eskatu zuten. Hemen ez da inor ere entzuten, eta gogoak ematen dizuena egiten duzue. Beste azterlan bat, beste kaxoi batean gordetzeko? Gogoratzen PERCO azterlanez? Non geratu dira? Non daude ekintza haiek? Adituak zarete azterlanak azterlanaren gainean egiten, dirua xahutzen, ondoren kaxoi batean gordetzeko.

Orain, 2019ko otsailean, azkeneko unean, hauteskundeak gainean ditugulako, garbiketa-zerbitzua kontratatu nahi duzue merkatu-plazarako: sabai-leiho bat konpondu eta hormak margotu... Guztia plantak egiteko.

puesta en marcha del reglamento, solicitando trabajarla y actualizarla si fuera preciso; para dotar de una partida presupuestaria, para realizar un nuevo plan de acción; y votaron en contra PNV y PP, y PSE-EE se abstuvo. Esa fue su única apuesta por la plaza del mercado.

Fomentar el comercio no es hacer un bono descuento en Navidades y olvidarnos para el resto del año.

Fomentar el comercio y la plaza de baserritarras, no es, poner la alfombra roja a Abadiño, para que desarrollen junto a San Fausto una nueva gran superficie comercial. Parece que les gusta vivir de los modelos agotados. Nosotros sin embargo, en noviembre de 2018 metimos una moción que fue aprobada, para que este ayuntamiento no firme un convenio con Abadiño y que se estudie este tema en la revisión del Plan General, para decidir entre todas que Durango queremos.

Fomentar la plaza del mercado y el comercio no es tenerla abandonada, ya no solo por las condiciones del espacio, que son penosas, sino porque a pesar de que los baserritarras junto a DurangoBai, intentaron dinamizarla y hacer de ella un espacio tractor de la economía local, ustedes no les han apoyado, les han abandonado.

Ahora para tratar de paliar en alguna medida o más bien, para lavaros la cara de cara a las elecciones, habéis contratado a una empresa a finales de 2018, para que haga un estudio estratégico, ahora, en el último momento, gastando 12.300 euros más IVA. Sin haberlo contrastado con nadie; ni DendakBai, ni baserritarras, ni Urkiola Landa Garapena, ni nadie. En Tolosa, han sido estos agentes los que lo han pedido. Aquí no se escucha a nadie y hacéis lo que os da la gana. ¿Otro estudio para que quede en otro cajón? ¿Se acuerdan de los estudios PERCO?... ¿Dónde han quedado, dónde sus acciones? Son expertos en hacer estudios y estudios, gastar dinero para que se queden en un cajón.

También ahora, en febrero 2019, en el último momento, porque se acercan las elecciones, queréis contratar la limpieza de cara de la plaza del mercado: arreglar el lucernario y pintar paredes... Todo de cara a la galería.

Esaguzue. Zenbatetan elkartu zarete baserritarrekin edo merkatuko postu finkoetako pertsonekin? Merkatu-plazaren zenbat koordinazio-mahai egin dituzue legealdi honetan? Erantzun! Oso erraza da. Bat bera ere ez!

Hori da zuen taktika. Ezer ez egitea, beste aldera begiratzea, arazoak ez konpontzea eta, hauteskundeak gerturatzen direnean, partxe pare batekin konpontzen saiatzea.

Zuk zeuk esaten zenuen, Goiztidi andrea, «Apoltronados» izeneko iritzi-artikuluan, 2013-04-29an, Durangon:

*"A lo largo de los 30 años precedentes, esa ha sido una de las acusaciones principales que hemos tenido que escuchar (y sufrir) quienes, desde las filas de EAJ-PNV hemos ocupado los más diversos cargos en todo tipo de instituciones que las ciudadanas y ciudadanos han tenido a bien otorgarnos dirigir. Nuestra larga historia democrática y nuestro compromiso con esta Patria nos han guiado para tratar de corresponder con la mayor de las responsabilidades a tanta confianza depositada en nosotras y nosotros.*

*(...)*

*En cualquier caso, probablemente el caso más curioso sea el de aquellas y aquellos que, señalándonos con el dedo inquisidor como "apoltronados" ocupan ahora, con toda pompa y boato, esos lugares preeminentes en las instituciones, incluso en aquellas que consideraban (eran otros tiempos, al parecer) "trasnochadas" (léase, Diputaciones Forales).*

*Aún con todo, siguen tratando de acaparar los más diversos y variopintos cargos: sin ir más lejos, en el Ayuntamiento de Durango han sellado un acuerdo con el PSE para acaparar (por turnos) aquellos cargos de representación supramunicipal que tengan que designarse por el Pleno del Ayuntamiento. Ello no significa, en ningún caso, que lleven a cabo el cometido que se auto otorgan, ni mucho menos, ahí está, como botón de muestra, el nulo trabajo que han llevado a cabo los representantes en el Consejo del Mercado de Baserritarras, nombrados sí, pero ni están, ni se les espera."*

Digan, ¿cuántas veces se han reunido con los baserritarras o con las personas de los puestos fijos del mercado? ¿Cuántas mesas de coordinación de la plaza del mercado han convocado en esta legislatura? ¡Respondan! Es fácil, ¡ninguna!

Esa es vuestra táctica: no hacer nada, mirar para otro lado, no resolver los problemas, y cuando se acercan las elecciones intentar disimularlo con un par de parches.

Ya lo decía usted, Sra Goiztidi, en su artículo de opinión "Apoltronados" de 29-04-2013, en Durangon:

*"A lo largo de los 30 años precedentes, esa ha sido una de las acusaciones principales que hemos tenido que escuchar (y sufrir) quienes, desde las filas de EAJ-PNV hemos ocupado los más diversos cargos en todo tipo de instituciones que las ciudadanas y ciudadanos han tenido a bien otorgarnos dirigir. Nuestra larga historia democrática y nuestro compromiso con esta Patria nos han guiado para tratar de corresponder con la mayor de las responsabilidades a tanta confianza depositada en nosotras y nosotros.*

*(...)*

*En cualquier caso, probablemente el caso más curioso sea el de aquellas y aquellos que, señalándonos con el dedo inquisidor como "apoltronados" ocupan ahora, con toda pompa y boato, esos lugares preeminentes en las instituciones, incluso en aquellas que consideraban (eran otros tiempos, al parecer) "trasnochadas" (léase, Diputaciones Forales).*

*Aún con todo, siguen tratando de acaparar los más diversos y variopintos cargos: sin ir más lejos, en el Ayuntamiento de Durango han sellado un acuerdo con el PSE para acaparar (por turnos) aquellos cargos de representación supramunicipal que tengan que designarse por el Pleno del Ayuntamiento. Ello no significa, en ningún caso, que lleven a cabo el cometido que se auto otorgan, ni mucho menos, ahí está, como botón de muestra, el nulo trabajo que han llevado a cabo los representantes en el Consejo del Mercado de Baserritarras, nombrados sí, pero ni están, ni se les espera."*

Antza denez, guri buruz ari zinen, baina, denbora igarota, badirudi egin duzuenaren eta egiten duzuenaren autodefinizio bat dela.

Durangoko herritarrei, merkatariei eta baserritarrei helarazi nahi diegu badakigula zer garrantzi duen tokiko merkataritzak, gure kaleei bizia ematen dienak, kalitatezko enplegua ematen duenak eta familia askoren euskarri denak. Era berean, aitortzen dugu baserritarren plaza gure nortasunaren eta kulturaren zati dela, eta gure herriko pertsonen arteko sozializazio-gune gisa jarduten duela.

Hori dela eta, garbi izan behar duzue tokiko merkataritza defendatuko dugula gure herrian, jasangarria, gertukoa eta kalitatezkoa, eta errealitate bihurtuko dugula. Inplikatutako eragile guztiekin lan egingo dugu, guztion artean erabakitzeko zer egin eta nola hobetu. Eta, datorren legealditik aurrera, errealitate egin.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bi minutu dira eta zuk zazpi erabili dituzu. Bozkatu egingo dugu, baina adierazi beharra dago eta gehiengoz onartuta bozeramaleen batzordean, lehenengo txandan bost minutu direla eta bigarrenean bi minutu eta, bitik zazpira bost minutu gehiago daude eta horrek esan nahi du injustiziaz jokatu izan duzuela zure gainerako kideekin. Kide hauek adostutako denbora bete egin dute eta zuk ez. Bozkatu egingo dugu:

**Ordezko mozioaren Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa**:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

**Jatorrizko mozioa Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa**:

- Aldeko botoak: BEDERATZI, 6 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

Se supone que hablaba de nosotros, pero pasado el tiempo, más bien parece una autodefinición de lo que han hecho y hacen.

Queremos trasmitir a la ciudadanía de Durango, a sus comerciantes y baserritarras que somos conscientes de la importancia del comercio local, que da vida a nuestras calles, fomenta el empleo de calidad y es el sostén de muchas familias. Asimismo, reconocemos que la plaza de baserritarras forma parte de nuestra identidad y cultura y que sirve de espacio de socialización para las personas de nuestro pueblo.

Por ello, tener claro que vamos a defender el comercio local, sostenible cercano y de calidad en nuestro pueblo y haremos de ello una realidad. Trabajaremos con todos los agentes implicados para que entre todos decidamos que hacer y cómo mejorar, y a partir de la legislatura que viene hacerlo realidad.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Son dos minutos y ha hecho usted uso de siete. Vamos a proceder a la votación, pero hay que subrayar que, según lo aprobado por la Junta de Portavoces, contamos con cinco minutos en el primer turno y dos en el de réplica. De dos a siete minutos hay una diferencia de cinco, por lo que se ha actuado de manera injusta con respecto a los demás grupos, los cuales han cumplido el tiempo estipulado, mientras que ustedes no. Vamos a proceder a la votación.

**Moción alternativa presentada por los Grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:**

- Votos a favor: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

**Moción original presentada por el Grupo Euskal Herria Bildu**:

- Votos a favor: NUEVE, 6 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

Por lo tanto,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra** Taldeek **ordezko** aurkezturiko **moazioaren testua.**

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por los Grupos **Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.**

**BEDERATZI.- DURANGOKO JUBILATUEK ETA HERRIA AUZO ELKARTEAK AURKEZTURIKO MOZIOA, MUGIKORTASUN MURRIZTUKO PERTSONEN KOLEKTIBOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2019000871, 2019KO URTARRILAREN 22KOA).**

**NUEVE.- MOCIÓN PRESENTADA POR LA PLATAFORMA DE JUBILADOS DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN DE VECINOS HERRIA, RELATIVA AL COLECTIVO DE PERSONAS DE MOVILIDAD REDUCIDA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2019000871, DE 22 DE ENERO DE 2019).**

* Durangoko Jubilatuek Plataformaren izenean, **Matias Oregi jaunak** erderaz irakurtzen du Herria Auzo Elkartearekin batera aurkezturiko mozia, mugikortasun murriztuko pertsonen kolektiboari buruzkoa. Sarrera Erregistroa 2019000871, 2019ko urtarrilaren 22koa, eta honako hau dioena:

* El **Sr. Matias Oregi**, de la Plataforma de Jubilados/as de Durango, da lectura en castellano a la Moción presentada junto con la Asociación de Vecinos Herria, relativa al colectivo de personas con movilidad reducida, con Registro de Entrada nº 2019000871, de 22 de Enero de 2019, del tenor literal siguiente:

*"La Plataforma de Jubilados de Durango y la Asociación de Vecinos Herria,con número de Registro ASRPB00841 y con domicilio social en Askatasun Etorbidea 28-30 Bajo, 48200-Durango (Bizkaia),*

*EXPONEN*

*Que en la Localidad de Durango hay un colectivo de personas con movilidad reducida con dificultades para desplazarse a los Centros de Salud o a otros servicios de carácter público.*

*Que en el Municipio de Durango no existen grandes distancias pero en ocasiones el acceso a servicios públicos puede suponer una gran dificultad, suponiendo a su vez un coste económico difícil de costear.*

*Que los solicitantes proponen las siguientes alternativas a la problemática expuesta:*

- *Programa de Ayudas al colectivo de referencia con la finalidad de subvencionar el coste desplazamiento.*
- *Convenio de colaboración con el servicio de taxistas de Durango con la finalidad de ofrecer un costo de desplazamiento accesible.*

*SOLICITAN*

*Que el Ayuntamiento de Durango valore la incidencia y las alternativas expuestas en pleno para su discusión. En su caso, aprobación y puesta en marcha de la solución elegida."*

Arazoa sinplea da. Pertsona batzuek, mugikortasun arazoak dituztenek, taxia erabili behar dute osasun zentroetara edo beste zerbitzu publikoetara joateko. Irakurri dut zeintzuk diren gure eskakizunak eta nahi duguna da erabaki bat hartzea orain.

El problema es simple. Varias personas, con problemas de movilidad, deben recurrir al taxi para acudir al centro de salud o a cualquier otro servicio público. He leído cuáles son nuestras solicitudes, y lo que deseamos es que se tome una decisión ahora.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzea ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Eskerrik asko zure azalpenagatik. Uste dut kontu honen inguruan guztiok egongo garela ados, oso garrantzitsua da. Mugikortasun murriztua, eskuarki, guztiok iritsi nahi dugun adinarekin batera etortzen da, eta, hori dela eta, uste dut guztioi eragiten digun kontua dela.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Gracias por su exposición. Creo que es algo que vamos a estar todos de acuerdo, es algo importante; la movilidad reducida, normalmente, viene acompañada con alcanzar edades que todos deseamos que nos llegue y por ello estamos tratando un asunto de todos.

Oso ondo etorriko zaigu ikustea zer egiten duten beste udalerri batzuetan; landu eta hobetu beharreko kontua da. Egia da Durangon ez dagoela guztia guztien esku, eta auzo batzuk urrunago daudela eta auzi hori konpondu beharra daukagula.

Nos va a venir muy bien lo que se hace en otros municipios, es algo que debemos trabajar y mejorar. Es cierto que en Durango no se encuentra todo a disposición de todo el mundo y hay barrios más alejados y debemos de dar solución a este asunto.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE PSOE)**: Eskerrak eman nahi dizkiot erretiratuen Plataformako ordezkariari, baita Herria bizilagunen elkarteko ordezkariari ere, gaur gurekin baititugu osoko bilkura honetan. Beste ezer baino lehen, testuinguru apur bat ipini nahiko nuke, beharrizan honekin pasatu ditugun faseen inguruan.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Quiero agradecer la presencia del representante de la Plataforma de personas jubiladas como de la Asociación de vecinos y vecinas Herria que hoy nos acompañan en el pleno. Antes de nada, quería hacer un poco de contexto por las fases que hemos pasado con esta necesidad.

Legealdiaren hasieran hauteman genuen premia hau, beti adinean aurrera egindako eta, adina gorabehera, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonekin pentsatuz, baita aldi baterako mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak gogoan izanez ere. Topatu genuen lehendabiziko arazoa zera izan zen, Durangon ez zegoela egokitutako taxirik; horrenbestez, ezin genuela zerbitzua egokiro eskaini.

Ya al inicio de esta legislatura detectamos esta necesidad, siempre pensando en personas de edad avanzada y con problemas de movilidad independientemente de la edad, incluso problemas de movilidad que podían ser transitorios. El primer problema que encontramos fue que no existía en Durango un taxi adaptado, por lo tanto, no podíamos dar un servicio en condiciones.

Hasieran, diru-laguntzaren bat emateko ideiarekin hasi ginen lanean, pentsatuz baten bat animatuko zela taxia egokitzera, kostu handia baitu lan horrek. Ondoren, eskaera bat izan genuen taxian aldaketak egiteko, eta zerbitzua eskaini ahal izateko; hori Gobernu Batzarrean aztertu genuen, eta onartu ere bai.

Empezamos a trabajar en la posibilidad de crear alguna subvención que podría animar a que alguien se decidiera a adaptar un taxi, porque tiene un coste muy elevado. Entre medias hemos tenido una solicitud para hacer una modificación en el taxi y poder dar el servicio; esto ha pasado por la Junta de Gobierno y se ha aprobado.

Halaber, bilera gehiago ere egin dira, dela Udaleko teknikariekin, dela Mugikortasun Sailekoekin, eta, horrekin batera, bilera bat egin da Durango taxi-gidari guztiekin, aukera emanez halako egokitzapenak egiteko euren autoetan.

Gaur egun, erregulazioa aurreratuta daukagu, baina mugatuta; izan ere, 80 urtetik gorako pertsonentzat edo mugikortasun-arazoak dituztenentzat izango da. Baditugu erregulazioak beste eremu batzuetan, baina ezin ditugu Durangora ekarri, arautzen baita auzoak erdigunera gerturatzea. Durangoren forma kontuan hartuta, horrek ez digu balio; guk zera bilatzen dugu, durangarrek euren autonomiari eutsi ahal izatea. Aipatu dugun erregulazio horretan, ezarrita daukagu urteko 150 bidaien auzia, haien kostua, eta Udalak emango duen diru-laguntza bidaia horiek egiteko.

Baina zati bat falta da: taxi-gidariekin hitzarmen bat sinatzea. Ez dut uste arazorik egongo denik, baina txosten juridikoak falta dira adineko pertsonei diru-laguntzak nola eman behar zaizkien zehazteko, eta, halaber, falta da Gizarte Ekintzako Batzordetik igarotzea, hark gauzatu baitu diru-laguntza. Berriro ere diot funtsezkoena taxi egokitu bat zela, ez genuen nahi Gurutze Gorriaren bidez egitea, beste toki batzuetan erabiltzen duten sistema; izan ere, ez genuen nahi erabiltzaileak anbulantzian zihoala sentitzerik, nahi genuen ahalik eta normalizatuena izatea. Espero dugu hemendik gutxira osoko bilkura honetan behin betiko onartzea.

* <u>Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)</u>: Eskerrik asko egindako ahaleginarengatik mozio hau hona ekartzeko eta galdu duzuen denboragatik ere. Galdu duzuen denbora diogu, gaur hemen eta gai honi buruz denok ari garelako denbora galtzen, dena aurkezten delako arrosa kolorekoa eta mozio hau aurkeztuta eta onartuta dagoelako orain dela ia 3 urte. Gure Taldeak 2016ko apirilaren 19an aurkeztu zuen eta onartu egin zen pleno areto honetan.

Gobernu Taldeak nahi izanez gero, zerbitzu hau martxan egongo litzateke 2018ko uztailaren 3an, zerbitzu hau martxan jartzeko ordenantza-zirriborroa batzordean aurkeztu genuelako, gainerako taldeek ekarpenak edo aldaketak egin ahal izateko. Uztailaren 3an.

También se han llevado a cabo diferentes reuniones, tanto con el personal técnico de este Ayuntamiento como con el personal de movilidad, y paralelamente a esto, se ha llevado a cabo una reunión con los taxistas de Durango dándoles la opción de poder llevar a cabo en su taxi.

A día de hoy tenemos la regulación avanzada que está delimitada porque va a ser para personas mayores de 80 años o con problemas de movilidad. Sí tenemos regulaciones en otras zonas, pero no son asumibles en Durango porque lo que se regula es acercar los barrios al centro. Por la forma de Durango, eso no nos sirve; lo que buscamos es que las personas de Durango puedan mantener su autonomía. En la regulación que he mencionado tenemos establecido el sistema de los 150 viajes que se van a establecer al año, el coste de estos, la subvención que va a llevar a cabo el Ayuntamiento para estos viajes.

Pero falta la parte de realizar un convenio con los taxistas; no creo que haya problemas, pero faltan una serie de informes jurídicos en cuanto a cómo dar la subvención a las personas mayores, y también falta que pase por la comisión de Acción Social que es quien va a llevar a cabo esa subvención. Insisto en que lo fundamental era el taxi adaptado, no queríamos que se hiciera a través de Cruz Roja, que es otro sistema que se utiliza en otros sitios, porque no queremos que la persona sienta que la llevan en ambulancia, queremos que sea lo más normalizado posible. Esperemos que en breve venga a este pleno la aprobación definitiva.

* Concejal <u>**Sr. López Lakunza (Herriaren Eskubidea)**</u>: Muchas gracias por el esfuerzo realizado para traernos esta moción, así como por el tiempo que han ustedes perdido. Y digo perdido, porque hoy aquí todos estamos perdiendo el tiempo, porque todo se pinta de color de rosa y porque esta moción está discutida y aprobada hace casi tres años, cuando fue presentada por nuestro Grupo el 19 de abril de 2016 y aprobada en este mismo salón de plenos.

En caso de que el Equipo de Gobierno así lo desee, este servicio estaría en marcha para el 3 de julio de 2018, debido a que el borrador de ordenanza para su puesta en marcha ya fue presentado en la comisión por nosotros, para que el resto de grupos pudiera hacer sus aportaciones o sus modificaciones. El 3 de julio.

Gaur, urtarrilak 29, itxaroten gaude. Antza denez, dena konponduta dago eta dena martxan dago. Beste adibide bat da gaur aurkeztu behar izan dugula mozio moduan 2017ko otsailaren amaieran onartu zena adierazpen instituzional moduan. Hasieratik argi izan dute zerbitzu honetaz ezer jakin nahi ez dutela eta taxi egokitu baten erosketarako laguntza eskaini dute.

Hori tranpa egitea da, eta zoritxarrez trikimailu horietara ohitzen ari gara. Taxia sartu nahi bada, oso ondo, baina hemen eskatzen dena zerbitzua martxan jartzea da, araudia egiterakoan aktiboki parte hartuta.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Berriz ere eskerrak eman behar dizkiegu herri mugimenduei, kasu honetan, bi plataformek elkarrekin ekarri dute proposamen hau, bata nahiko berria da, Pentsionisten Mugimendua, oso berria baina oso aktiboa aldi berean; eta bestea Durangoko elkarte historiko bat, Herria Auzo Elkartea, eta biek batera ekarri dute proposamen hau; beraz, eskertu nahi diegu bai proposamena eta baita gaur eta egunero egiten duten lana ere.

Mugikortasunaren inguruko kezka askotan agertu da, guk ere askotan ekarri dugu pleno aretora; saiatu gara autobus geltoki gehiago egiten eta azkeneko proposamena izan zen beste geltoki bat egitea auzoan bertan. Hori ez da nahikoa. Askotan autobus geltoki bat ez da nahikoa mugikortasun-arazoak konpontzeko; egia da Durangon distantziak ez direla oso luzeak, baina distantzia laburrenak ere luze egiten dira ibili ezinik gabiltzanean. Badakigu autobus-linea batzuk ipintzea jende jakin batentzat zerbitzua dela, baina beste batzuentzat autobus batera igotzea lan nekeza da.

Era berean, osoko bilkura honek onartu du mugikortasun mahai bat martxan ipintzea, Durangoko mugikortasun-arazoak aztertzeko, eta ikusteko nola eman konponbide orokor bat arazo horiei. Hori onartuta dago osoko bilkura honetan, eta Gobernu-Taldeak eduki bide duen kaxoi izugarri horretan egongo da galduta, erabiltzen ez diren eraikin horietako batean. Onartzen diren baina, gustukoak ez direnez, sekula martxan ipintzen ez diren mozio haiekin guztiekin batera egongo dira; hantxe egongo da, nonbait, mugikortasun ma-

A día de hoy, 29 de enero, seguimos esperando. Parece ser que está todo resuelto y en marcha. Otro ejemplo es que hoy hemos tenido que presentar, a modo de moción, una declaración institucional que fue aprobada a finales de febrero de 2017. Desde un principio han tenido claro que no quieren saber nada sobre este servicio, y han ofrecido una ayuda para un taxi adaptado.

Eso es hacer trampas, y, desafortunadamente, nos estamos acostumbrando a este tipo de triquiñuelas. Si se quiere incorporar un taxi, ¡perfecto!, pero lo que aquí solicitamos es que se ponga en marcha el servicio, con una participación activa a la hora de diseñar el reglamento.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Una vez más, queremos dar las gracias a los movimientos populares. En este caso, han sido dos plataformas las que han traído de manera conjunta, una de ellas relativamente joven, Pentsionisten Mugimendua, tan joven como activa. La segunda es una asociación histórica de Durango, Herria Auzo Elkartea. Entre ambas, nos han traído esta propuesta, por lo que les queremos dar las gracias tanto por la propuesta como por su labor diaria.

